

ELKARRIZKETA: JOXE AMIAMA • ESPERIENTZIA: HAMALAU HAZI •
EKARPENAK: ORIO3TEN • GALDEIDAZUE: AITZIBER ESTONBA •
BILBOKO EUSKAL MUSEOA • ATZEKO ATETIK: EZ DAKIGUNA

hh
hik hasi



156

4 EURO • 2011KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

**Telebistak balio positiboak
pizten ditu nerabeengan**



Ezagutu Poloak eta
dinosauroen erresuma!
Ondoren, muntatu barnean
dauden 8 animalia eta
eszenatokiak.



TTARTALO
www.ttartalo.com



3.ekar
ilustrazio
eta ipuin
lehiaketa

oinarriak: www.elkar.com-en eta
elkar sareko liburu denda guztietan

aurkibidea



8
gaia

TELEBISTA ETA NERABEAK

“Telebista” eta “nerabea” hitzak batzeak emaitza negatiboak ekarri behar dituela pentsatzen dugu maiz. Kontsumo gehiegizkoa, balio lehiakor eta arinen transmisioa... Baina...



18
elkarrizketa

JOXE AMIAMA

Psikopedagogia ikasi zuen eta familiaren gaiarekin lotutako ikasgai bat izan zuen han. Memento hartan lehen haurra izan zuen eta asko erakarri zuen ikasgai hark: “hemendik bideratuko dut nire profesionaltasuna”, pentsatu zuen. Eta hala izan da.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

**TELEBISTAK BALIO POSITIBOAK
PIZTEN DITU NERABEENGAN**

16 elkarrizketa
JOXE AMIAMA

24 esperientziak
Hamalau hazi

Garapenerako Hezkuntzako esperientziak. Konsue Salinas

28 ekarpenak
Orio3ten

Orioko herritarrak hezkuntzaz hausnartzen

30 galdeidazue

Nerabeak modu probokatzailean janzten al dira? Ez al genuke zerbait egin behar hori saihesteko?

Aitziber Estonba

35 berriak

40 nora joango gara?
Bilboko Euskal Museoa

42 Atzeko atetik
Xabi Paya

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiro, Aina Gorostitza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-02-17). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala martxoa

Administrazioek jartzen dituzten trabak gaindituz, norabide argia du euskararen aldeko hezkuntzak



Ateak zabalik daude itxaropenerako. Krisiaren ondorioak gogorak dira. Badakigu egoera zaila dela, baina herritarrek gero eta argiago dute norabidea, eta, bide horretan, hezitzaileek zeresana eta eragina handia dute.

Herrien garapenean hezkuntzak duen garrantzia handia dela, jada, edo nork onartu arren, hainbat administraziook hartzen dituzten erabakiak ez dagoz bat ideia horrekin. Izan ere, ugariak dira Euskal Herri osoan hezkuntzaren garapenak jasaten dituen trabak: aurrekontuak murriztea, langileen lan baldintzak kaxkartzea, euskara ez izatea hizkuntza ofiziala hainbat lurraldetan, Frantziako administrazioak, bereziki, behar bereziak dituzten ikasleak aintzat ez hartzea, hainbat politikarien adierazpenak entzutea, eta abar.

Politikarien adierazpenen artean deigarriak izan dira Patxi Lopez EAEko lehendakariak egindakoak: "Bortizkeriaren bukaerak gauzak erraztuko dizkio euskalgintzari"... "(Indarkeriaren bukaeraren ondoren) Euskarak bat egingo du behin betiko askatasunarekin". Halako adierazpenek zer mesede egiten diote euskararen normalizazioari? Zerikusirik ba al du hizkuntzak

Patxi dioen horrekin guztiarekin? Euskara zeren susmopean jarri nahi du?

Jakina da neurri eta adierazpen horiek guztiek ezkortasuna eta desilusia ekar ditzaketela hezkuntza esparrura, eta, agian, hainbat hezitzaile zulo horretan eroria dela, dagoeneko. Baina, hezitze lanean sinesten duenak ongi daki jende askoren etorkizuna prestatzen ari dela; eta, horretarako, egiten duen lanean konfiantza izan behar duela, elkarlanean aritu behar dela eta ilusioa transmititu egin behar duela. Hori baita eguneroko lanetik egin dezakeen ekarpena.

Esan genezake, oro har, Euskal Herriko jendartea ongi ari dela erantzuten erasoei. Hori erakusten dute, behintzat, azken aldiak egin diren hainbat adierazpenek: aurrematrikulazio berrietan, euskarazko ereduak berriro ere gora egin du (Nafarroaren kasuan, zehazki, ingelesaren gaia nahasteko erabili bada ere, D ereduak dezente aurreratu

du); gero eta jende gehiago eskatzen ari da euskaraz ikasi ahal izateko onartua ez duten hizkuntzaren ofizialtasuna; Iparraldean, bestalde, *Bizitoki* ikastola berritzailea sortzeko ahaleginean ari dira, eta, behar bereziak dituzten ikasleentzako mugimendua indartzen ari da...

Horrez gain, zer adierazi dute hauteskunde sindikalek? Hezkuntzako langileek euskararen aldeko jarrera duten ordezkariak babestu dituzte. Lurralde eta sare guztietan gertatu da fenomeno bera, euskararen alde lanean ari direnak gero eta gehiago dira, gero eta babes handiagoa dute.

Ateak zabalik daude itxaropenerako. Krisiaren ondorioak gogorak dira. Badakigu egoera zaila dela, baina herritarrek gero eta argiago dute norabidea, eta, bide horretan, hezitzaileek zeresana eta eragina handia dute. Urteetan hala izan da, eta, orain ere bai, nola ez. Izan gaitezten horren jakitun!

kronika

Ikasleek ikaskideengandik jasaten duten jazarpena gero eta gehiago sare sozialen bidez gertatzen ari dela ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *bullying* horri buruzko informazioa, jazarpenaren probak lortzeko moduak eta jokabide egokien berri ematen duen gida sortu du. Epaitegietara jo ahal izateko datu bilketa, datuen babesa bermatzeko neurriak eta elkarbitzita egokia sustatzeko proposamenak ere aurkezten ditu tresna berriak. Europar teknologia berrien bidez, hala sare sozialen bidez, nola sakaleko telefonoen bidez, *bullying*-a pairatzen duten 16 urtetik beherako haur eta gaztetxoak %5era iristen dira. Eskola barruko *bullying*-ari aurre egiteko protokolo berritua ere prestatzen ari da Hezkuntza Saila, eta hilabete honetan aurkeztuko du. Eskolako jazarpena izan ziteezkeen 90 kasu ikertu zituzten iaz.



D ereduko aurrematrikulazio kopurua % 10 hazi da Nafarroan

Azken urteetan D ereduko matrikulazioak zuen kopuru ahulari buelta ematen hasi dira Nafarroan, ikasturte berriko aurrematrikulazio datuek erakusten duten eran: % 10 hazi da euskaraz ikasteko ereduaren matrikulatu diren ikasleen kopurua. Oraindik ere datu zehatz eta definitiboak falta diren arren, behin-behineko datuen balantze ona egin dute eragileek. Euren esanetan, “Nafarroako gizarteak D ereduaren alde egin du apustua”, eta Nafarroako Gobernua bere jarrerari eta datu hauei buruz hausnar dezan eskatu diote.

Azken urteetan ahuldua zegoen D ereduaren hazkundea Nafarroan; iaz, esate baterako, behera egin zuen, % 2,2. 2009-2010 ikasturtean aurreko urtean baino %3 gehiago matrikulatu

ziren, baina hala ere, eragileek kopuru apalzat jotzen zuten kopuru hori. Miguel Sanzen Gobernuak ingelesa sustatzen duen TIL ereduaren indartzearekin batera etorri da D ereduak azken urteetan jasan duen geldialdia.

Aurten ikastetxe publikoetan eta ikastoletan hazi dira euskaraz ikasteko matrikulak. Eskola publikoetan, 1.400 ikasle inguruk eman dute izena lehen aldiz; iaz baino ia 200 ikasle gehiagok. Ikastoletan, 538 ikasle berrik eman dute izena, iaz baino ia 50 ikasle gehiagok.

Nafarroa osoan euskara ofiziala izateko legea atzera, Parlamentuan

Duela 25 urteko Euskararen Legea dago indarrean egun Nafarroan, eta hori aldatzeko proposamena eraman du NaBaik Parlamentura, Nafarroa osoan euskara ofiziala izan dadin eta gaztelaniaren pare izan dadin arautu zedin.

Baina legea ez da aurrera atera, 14 boz alde eta 36 kontrako jaso zituen, eta ez dute, ondorioz, legea tramitatu. NaBairen proposamenak soilik NE-Ben babesa izan zuen, eta UPNk, PSNk eta CDNk kontra egin zuten. “Lege horrekin, Nafarroatik bota nahi dituzte gaztelaniaz hitz egiten dutenak”, esan zuen UPNko Carlos Garcia legebiltzar-kideak kontrako euren bozka arrazoi-tzeko.

"Bitartekoetan perfekzioa eta helburuetan nahasmena. Horra, Mendebaldearen konfesioa"

Joseba Azkarraga Etxagibel



Ahalmen urriko haurrak eskolatzeko baliabideak exijitu dizkiote Frantziari

Seaskako irakasle, langile eta gurasoek protesta egin dute Baionako subprefeturaren aurrean ahalmen urriko haurren eskubideak bete ditzatela exijitzeko, eta era berean, ahalmen urriko haurren integrazioa bermatzeko ikastolek gastatu duten dirua itzultzeko ere eskatu diote Frantziako Hezkuntza ministerioari.

Frantziako ministerioak, berez, legez bermatzen du ahalmen urriko haurrak eskolatzea, baina Seaskak salatu duenez, eskolatzea gerta dadin baliabideak ukatzen dizkiete Frantziak. Seaskako Integrazio Batzordeak 175.000 euro lortu beharko ditu integrazio xedea burura eramanez nahi badu.

Seaskan ahalmen urriko 39 haur eskolatu dituzte ikasturte honetan, eta

horietariko 29ren laguntza bere gain hartu beharko du Integrazio Batzordeak.

Hizkuntza eskubideak legez ukatzen jarraituko du Gobernuak

Hizkuntza gutxituen lege eskaria ukatu du Frantziako Gobernuak berriro ere, Luc Chatel Frantziako Hezkuntza ministroak Parlamentuan esan du Frantzian ez dela eskubide berezirik duen talderik. Horrela, euskalgintzak ez eze, Frantziari nazioarteak egin dizkion gomendioak ere ukatu egin ditu Chatelen ministerioak, Nazio Batuen Erakundeak Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko ituna izenpetzeko eskatu baitzion 2008an.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak adierazi du Frantziak ez dituela gutxiengoaren hizkuntz eskubideak errespetatzen, baina, era berean, gogorazi du Frantziako Konstituzioak hizkuntza eskubideak ez aitortzeak —2. artikulua dio Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa dela— ez duela esan nahi eskubide horiek existitzen ez direnik.

Ipar Euskal Herrian, Behatokiaren eta Euskal Konfederazioaren salaketa-rekin bat egiten dute Batasunak, ABk, Berdeek eta EAJk, eta ofizialtasuna edo lege aitortza eskatzeko ekimen ugari egin dituzte azken urteotan, nahiz eta guztiek Frantziaren ezetza jaso duten.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sistema publikoko hauteskunde sindikalek erabat aldatu dute aurreko bozkek utzitako panorama: gorakada nabarmena izan dute LAB eta EILAS sindikatuak, eta alderantziz, CCOOk ordezkari ugari galdu ditu.

CCOOK jasan duen beherakada hori UGTrekin batera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin egindako akordioen ondorioz etorri zaiela ondorioztatu dute eragileek. LABeko ordezkari Jon Urrusolok honako hau ondorioztatu du: "Kontsekuentziaz jokatzeari" saritu dutela botoemaileek, "eta langileen kontra aritu direnak zigortu" dituztela.

Irakaskuntza ez unibertsitarioan 57 ordezkari lortu ditu LABek; 45, ELAK; 40, STEE-EILASEk; 31, CCOOk eta 8 UGTk. CCOOK lehen postutik laugarrenera egin du irakaskuntza ez unibertsitatarioan, 12 delagatu galdu dituelarik. Unibertsitatean LABek 23 ordezkari lortu ditu, EILASEk, 19; CCOOk, 16; ELAK eta UGTk, 13na eta CSIFek, 2. 32.000 langile baino gehiago zeuden hautestontzietara deituak.

G A I A

Telebistak balio positiboak pizten ditu nerabeengan





Concepcion Medrano, EHUko katedraduna

“Telebista” eta “nerabe” hitzak batzeak emaitza negatiboak ekarri behar dituela pentsatzen dugu maiz. Kontsumo gehiegizkoa, balio lehiakor eta arinen transmisioa... Baina berriki Euskal Herriko Unibertsitateak mundu mailako beste hainbat unibertsitateekin elkarlanean egin duen ikerketa baliagarri izango zaigu, nerabeek telebistaz egiten duten erabilerari buruzko hainbat aurreiritzi alboratzeko, nerabeek telebistatik balio positiboak jasotzen dituztela baitio ikerketak.

G

Zertarako ikusten dute nerabeek telebista? Zer helbururekin?

Lehenik eta behin, nerabea telebistaren aurrean irudikatzen dugunean, ahaztu egin behar dugu gaztetxoa pantaila bakarrari begira egoten zen garaia. Gaur egun, nerabeak “multipantaila” dira. Hau da, telebista ikusten duten bitartean, sakelako telefonoa erabiltzen dute, deitzeko nahiz mezuak bidaltzeko, eta, askotan, Interneten dabilta ordenagailu bidez. Beraz, nerabeez eta telebistaz hitz egin behar badugu, kontuan izan behar dugu gaur egungo neska-mutilen ezaugarri hori.

Hala ere, nerabeak “multipantaila” izanagatik, telebista da oraindik ere nerabeak sozializatzeko agente nagusia, beste komunikabideekin alderatuta (Internet, sakelakoa, bideo-jolasak...), nahiz eta horixe izan nerabeek esku artean erabili ohi dituzten komunikazio tresnetan zaharrena.

Baina zertarako ikusten dute nerabeek telebista? Zer helbururekin? Erantzuna argia da: entretenimendurako; informatzeko edo ikasteko baino gehiago, entretenitzeko erabiltzen dute telebista. Orain, nerabeak eskolara ikastera joan arren entretenitu ere egiten direla onartzen badugu, begien bistakoa da, telebista entretenitzeko ikusi arren, ikasiera egiten dutela. Ondorioz, ezin da utzi gaur egun telebista hezkuntzaz kanpoko tresna gisa.

Hauek dira Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko katedradun eta ikertzaile Concepcion Medranok zuzendu duen ikerketaren lehen bi ondorioak: nerabeak, gaur egun, “multipantaila” dira, eta entretenitzeko ikusten dute telebista. *Telebistako dieta. Nerabeen baloreak eta nortasunaren eraikuntza* izeneko ikerketa Donostian eta beste zazpi hiritan garatu dute, hala nola Zaragozan eta Malagan (Espainia), Oruron (Bolivia), Rancaguan (Txile), Macorin (Dominikar Errepublikan), Guadalajaran (Mexiko) eta Dublinen (Irlanda). Guz-

tira, zortzi hirietako 1.220 neraberekin egin dute test bidezko ikerketa (horietatik 125 donostiarrak izan dira), 15 urtetik 19ra bitarteko nerabeekin, zehazki; eta, une honetan, ondorioak idazten ari dira ikerketaren barnean.

Nerabeei telebistari buruz galdetzean, hainbat faktore izan ditu kontuan ikerketak. Batetik, kontsumo ohiturei dagozkien faktoreak aztertu dituzte: zenbat orduz ikusten duten telebista, aldi berean beste ezer egiten ote duten... Bigarrenik, telebistan ikusten duten horrekiko nerabeek zer-nolako identifikazio maila sentitzen duten ikertu dute; hirugarrenik, telebista ikusteko uneaz galdetu diete; laugarrenik, Internetez egiten duten kontsumoa izan dute aztergai; bosgarren puntuan, testuinguru fisikoa hartu dute kontuan; eta, azkenik, ikerketako atalik garrantzitsuenak telebistak nerabearen nortasuna eraikitzeke garaian duen eragina aztertzeke baliatu dute; hau da, neska-mutilek telebistatik jasotzen dituzten balioak zer-nolakoak diren ikuskatu dute.

Ikerketaren abiapuntuko hipotesi nagusia hauxe da, Medranok dioenez: “Gure ustez, telebistak, beste agente batzuekin batera, lagundu egiten du nerabeak sozializatzen”. Lehen datuen arabera, komunikabideek eta, bereziki, telebistak eskolak berak baino gehiago sozializatzen ditu neska-mutikoak gaur egun. “Nerabeak sozializatzeko agente garrantzitsuenak familia da; ondoren, lagunak datoz; gero, telebista; eta laugarren, eskola”, ikerketaren zuzendariak adierazi duenez.



Nerabeen zaletasunak

Balioak: pertsonaia sortzaile eta originalak dituzte gustuko

Nerabeek telebistatik jasotzen dituzten balioak ikertzeko, Schwartz-en metodoa (2003) erabili dute ikertzaileek, esparru teoriko hori baliagarria baita kultura arteko ereduak kontrastatzeko. Metodo horrek 10 balio zedarrizten ditu, balio indibidualistak zein kolektiboak: autozuzendaritza, estimulazioa, hedonismoa, lorpenak, boterea, segurtasuna, konformatzeko jarrera, tradizioa, onginahia eta unibertsaltasuna dira aztertu dituzten ezaugarriak.

Schwartzek estandarizatutako balio horien inguruan modu abstraktuan ez galdetzeagatik, nerabeen gustuko pertsonaiengana jo dute ikertzaileek, telebistatik jasotzen dituzten balioak aztertzeko; hau da, gustuko pertsonaiek transmititzen dizkieten balioen edo ezaugarrien bidez egin dute azterketa. Izan ere, Medranok dio telebistako pertsonaiek dituzten eta guk gustu-

ko ditugun balioetan jartzen dugula arreta.

Zehazki, honako galdera hau egin diete ikertzaileek 1.220 neraberi: “Zein da telebistan gustukoen duzun pertsonaia? Baliorik islatzen al du pertsonaia horrek?”. Galdera horien erantzunak aztertu ondoren, Medranok dio nagusiki jatorrasunagatik eta umoreagatik nabarmentzen dituztela gaztetxoek pertsonaia batzuk besteen gainetik; ondoren, izaeragatik, buruargitasunagatik, egiten duten lanagatik eta beren jarrera inkonformistagatik. Azken tokian, duen itxura fisikoagatik gustatzen zaie pertsonaia bat edo beste. Gustuko pertsonaiek aukeratzeko orduan, neskek pertsonaia jatorrak eta umoretsuak aukeratzeko joera erakutsi dute, eta mutilek izaera nabarmendu dute.

Emaitzetatik ondorioak ateraz, katedradunak dio nerabeek galdera horri

Ez da egia nerabeek telebistan boterea eta edertasun fisikoa dituzten pertsonaiek balioesten dituztela; aitzitik, estimulua edo sormena nahiz ingurukoei laguntzeko borondatea dira neska-mutilek balioesten dituzten ezaugarriak.

“balio positiboekin” erantzun diotela. “Telebistak balio positiboak eta negatiboak transmititzen ditu, baina gazteek, nagusiki, balio positiboetan jartzen dute arreta”, ondorioztatu du irakasleak.

Bada, “zein da telebistan gustukoen duzun pertsonaia? Baliorik islatzen al du pertsonaia horrek?” galdetzean, nerabeek, zehazki, sormena duten pertsonaiek nabarmendu dituzte gustukoen artean; Schwartzen metodoaren barruan ‘autozuzendaritza’ deritzon balioa da, eta indibidualistatza hartzen dena. “Harentzat garrantzitsua da ideia berriak izatea eta sortzailea izatea; gauzak bere kabuz eta modu originalean egitea gustatzen zaio” dioten itema nabarmendu dute gustukoen dituzten pertsonaien ezaugarrien artean, eta balio hori izan da kultura guztietako nerabeen artean ondoen puntuatutako ezaugarria; hau da, aztertutako kultura guztietan, nerabeek sormena eta originaltasuna dituzten pertsonaiek dituzte gogokoen, ikerketaren arabera.

Beraien gustuko telebistako pertsonaien ezaugarriei buruz galdetuta,

Telebistako pertsonaia preziatuena arrazoi honengatik dut gustuko

<i>1 eta 6 bitartean balioesteko</i>	Oro har, batezbeste	Donostian
Alaitasuna eta umorearengatik	4,95	4,68
Duen nortasunarengatik	4,86	4,42
Adimenez azkarra izateagatik	4,12	3,69
Egiten duen lanarengatik	4,01	3,41
Konformista ez izateagatik	3,49	3,23
Erakartasun fisikoarengatik	3,54	2,94



Nerabeei hausnarketa bat egin eta idatziz erantzuteko eskatzen diegunean, gaur egun ere familia da gehien balioesten duten elementua, eta lagunak edukitzea, maitatuak sentitzea, berotasun afektiboa izatea eta onartua sentitzea ere diruaren aurretik balioesten dituzte



Ikerketa egiten ari den taldeko hainbat kide.

hauek dira gazteek ondoen balioetsi dituzten ezaugarriak:

- “Harentzat garrantzitsua da ideia berriak izatea eta sortzailea izatea; gauzak bere kabuz eta modu originalean egitea gustatzen zaio”.
- “Harentzat garrantzitsua da bere erabakiak hartzea, eta ez zaio gustatzen besteen menpean egotea”.
- “Harentzat garrantzitsua da bere harremanen esparruko jendearen ongizatea zaintzea eta hobetzea. Pertsona leial, zintzo, bihozbera eta arduratsua da”.
- “Inguruko jendeari laguntzeari garrantzi handia ematen dio, eta baita bere lagunekiko leial izateari ere”.
- “Ondo pasatzeko aukerak bilatzen ditu; harentzat garrantzitsua da plazera emango dioten gauzak egitea”.
- “Ezusteak gustatzen zaizkio, eta gauza berriak probatu nahi ditu. Bizitzan gauza asko egitea garrantzitsua da harentzat”.

Ikerketaren egileek uste zuten nerabeei telebistak transmititzen dituen beste balio batzuetan, balio negatiboagoetan, arreta handiagoa jarriko zutela:

“Nerabeei ez dituzte boterea duten pertsonaiak gozesten, ezta erakargarritasun fisikoa dutenak ere”. Ikertzaileek espero baino emaitza okerragoak jaso dituzte ondoko item hauek:

- “Harentzat garrantzitsua da aberatsa izatea; diru asko eta gauza garestiak eduki nahi ditu”.
- “Harentzat garrantzitsua da jendearen errespetua, ingurukoek hark esaten duena egin dezaten nahi du”.

Balioen atalean, ez da atera kulturaren araberrako alde nabarmenik, eta, oro har, zortzi hirietako nerabeei ezaugarri berberak nabarmendu dituzte. “Balioak aztertzean, garrantzitsua iruditzen zaigu kulturen artean dagoen berdintasuna; nahiz eta kulturak eta nortasunak desberdinak izan, balioesten dituzten ezaugarrien artean ez dago egiturazko alderik. Nerabegaroko balioak globalizatuta daudela erakusten du horrek”.

Dena den, Medranok argi du aldeak egin daitezkeela nerabeei benetan pentsatzen dutenaren eta pentsatu nahi dutenaren artean. “Ez dakigu nerabeei balio horiek zergatik nabar-

mentzen dituzten, galdetzailearekin ondo gelditzeko edo benetan hala pentsatzen dutelako; askotan, garenaren arabera ez, baizik eta izan nahi dugunaren arabera erantzuten dugu guztiok”. Hori jakinda ere, irakasleak positibotzat jotzen du nerabeei jakitea pertsona bat irudimenagatik balioestea positiboagoa dela erakargarritasun fisikoa-gatik balioestea baino.

Ondorioz, zortzi hirietako 1.220 nerabeei galdetu ondoren, Medranok dio ez dela egia nerabeei telebistan boterea eta edertasun fisikoa dituzten pertsonaiak balioesten dituztela, eta aurretik egin dituzten beste ikerketa batzuekin bat dator hori; aitzitik, estimulua edo sormena nahiz inguruko laguntzeko borondatea dira neska-mutilek balioesten dituzten ezaugarriak. “Nerabeei hausnarketa bat egin eta idatziz erantzuteko eskatzen diegunean, gaur egun ere familia da gehien balioesten duten elementua, eta lagunak edukitzea, maitatuak sentitzea, berotasun afektiboa izatea eta onartua sentitzea ere diruaren aurretik balioesten dituzte. Eta hori positiboa da”. Hipotesi hori baieztatzeko, ariketa hau proposatzen diete irakasleei ikertzaileek: “Galde iezaiezue zuen ikasleei bizitzan honetan gehien axola zaienaz..., eta sorpresa ederrak hartuko dituzue”.

Zenbat ikusten dute telebista?

Identifikazioa

Telebistatik edo, zehatzago, telebistan gustukoak dituzten pertsonaiengandik jasotzen dituzten balioek eragina dute nerabeen nortasuna eraikitzekeo garaian. “Haiatzat garrantzitsuak diren balioak bilatzen dituzte telebistako pertsonaiengan, eta horrek euren nortasuna eraikitzen laguntzen die”. Medranoren ustez, telebistan ikusten dutena zenbat eta errealistagoa iruditu, orduan eta eragin handiagoa du horrek nerabeen nortasunean. “Nerabeak bizi esperientzia txikia duenean eta telebistan ikusten duena errealista iruditzen zaionean, bereziki komunikabide hori eredu izango da harentzat, eta eragina izango du haren nortasunean. Nerabea zaugarria da artean, eta inguruan dituen ereduak asko marka dezakete haren izaera”. Adibide bat jarri du EHUko irakasleak: “Nerabeak telebista batean modu errealistan ikusten badu gazteek elkar ezagutu eta berehala sexu harremanak dituztela, oso gauza normala irudituko zaio hori”.

Dena den, Medranok dio nortasuna eraikitze horretan gurasoak direla neska-mutilen lehen eredu; “baina telebistako pertsonaiek ere eragina dute, euren burua identifikatuta ikus baitezakete, edo kopiatzeko eredutzat har baititzakete”.

Kronika arrosako eta *talkshow*-etako pertsonaiekin identifikatzea arazotzat hartzen du Medranok, eta, batez ere, Boliviako, Txileko eta Mexikoko kasua litzateke hori. “Arratsaldean telebistan bere bizitza –egiazkoa edo as-



matutakoa–kontatzeagatik 6.000 euro irabazi dituen pertsona batekin identifikatzen baldin bada nerabea, hori negatiboa da; nerabe horrek ez dauka bere nortasuna eraikita, ez dauka bere balioak indartuta eta pentsamenduak arazoituta; ondorioz, pentsa dezake ordubetean 6.000 euro irabaziko baditu horrela, ez duela merezi lan egiteak”. Horrelako identifikazioekin tentuz jokatu behar dela dio irakasleak.

Telebistan gustukoak dituzten pertsonaiengandik jasotzen dituzten balioek eragina dute nerabeen nortasuna eraikitzekeo garaian. Haiatzat garrantzitsuak diren balioak bilatzen dituzte telebistako pertsonaiengan, eta horrek euren nortasuna eraikitzen laguntzen die. Telebistan ikusten dutena zenbat eta errealistagoa iruditu, orduan eta eragin handiagoa du.

Ikerketaren arabera, nerabeei telebistan errealisten gertatzen zaizkien gaiak alkoholarekin eta tabakoarekin lotutakoak dira, horien kontsumoak dakartzan ondorioei buruzkoak, hain justu; eta, Medranoren ustez, positiboa da gazteek horri erreparatzea, eta ez iruditzea hain errealista telebistek sexuaz, indarkeriaz edota edertasunaz ematen duten irudia.

Telebistako pertsonaia preziatuenarekin identifikazioa

1 eta 5 bitartean balioesteko	Oro har, batezbeste	Donostian
Gauzak pertsonaiaren ikuspegitik aztertzen ahalegintzen da	2,75	2,67
Pertsonaiari gertatzen zaionaz arduratzen da	2,61	2,37
Pertsonaiak izaten dituen erreakzio emozionalak bizitzen ditu	2,35	2,30
Pertsonaia bezalakoa edo antzekoa izatea nahiko luke	2,28	2,08



Dublinen bi aldiz gehiago ikusten dute telebista Donostian baino

Balioen atalean, Boliviako, Dublin-go, Txileko zein Euskal Herriko nerabeen artean alde handirik ez bazegoen ere, agerikoak dira kulturen arteko desberdintasunak ikerketak aztertutako beste adierazle batzuetan. Telebista kontsumitzeko ohiturei dagokienez, alde horiek nabarmenak dira, emaitzek erakutsi duten moduan.

Telebistari gazteek eskaintzen dioten denbora, esate baterako, bikoiztu egiten da Donostian izan Dublinen edo Rancaguan. Ikerketan parte hartu duten 125 donostiarrek, batzaz beste, 2,5 orduz ikusten dute telebista egunean; aldiz, Irlandan eta Txilen, 4,58 orduko

emaitza atera da ikerketan. Donostiarrak izan dira ikerketa osoan kopuru txikienak dituzten nerabeak, bai aste barruko datuei erreparatuz gero (2,5 ordu), eta baita asteburukoei (2,87 ordu) erreparatuz gero ere.

Alabaina, telebista ikusten ari diren bitartean zer egin ohi duten galdetu die, eta, atal horretan ere, erantzunak desberdinak izan dira jatorriaren arabera. Besteak beste, etxeko lanak egiten ote dituzten, jaten duten, irakurtzen duten... galdetu zaie gaztetxoek. Nerabe dublindarrek, esate baterako, telebista ikusten duten bitartean sakelako telefonoa erabiltzeko oso ohitura handia

dute, bai lagunekin hitz egiteko eta bai mezuak bidaltzeko ere. Donostian, aldiz, telebista ikusten duten bitartean, familiarekin egoteko baliatzen dute denbora hori neska-mutilek; eta Txilen, berriz, telebista ikusten duten bitartean jateko ohitura daukate.

Telebista ikusten duten bitartean egiten dutenaz galdetu die nerabeei, baina, telebistaz beste, hura itzaltzean aisialdian egiten dutenaz ere galdetu die. Erantzun horietan ere, nahikoa batasun antzematen da, nahiz eta kultura desberdinetatik etorri: gehienek familiarekin pasatzen dituzte ordu gehien, astean 9,30; horren atzetik, hauek daude: lagunekin egotea, Interneten ibiltzea, musika entzutea, kirola egitea eta, horien ondoren, bideo-jokotetan ibiltzea. Galdera horretan ere, espero ez zituzten emaitzak jaso dituzte ikerkizailuek, Medrano harritu egin baitu bideo-jokoak bosgarren lekuan ikustekak. Atzerago ageri da irakurketa; Donostian, adibidez, egunean telebistari eskaintzen dizkioten orduak eta astean zehar irakurketari eskaintzen dizkiotekak parean daude; hau da, egunean 2,45 orduz ikusten dute telebista, eta astean 2,64 orduz irakurtzen dute. "Donostiako telebista kontsumoari buruzko datuak ez dira altuak, beste kultura batzuekin konparatuta; baina, irakurtzeari eskaintzen zaion denborarekin alderatuta, donostiarrek telebistari eskaintzen dioten denborari buruzko datuak ere kezagarriak izan litezke".

Egunean, batezbeste, zenbat ordu ikusten dute telebista?

	Lan egunetan	Asteburutan
Donostia (Euskal Herria)	2,45	2,87
Macoris (Dominikar Errepublika)	2,47	2,89
Zaragoza (Espainia)	2,94	2,94
Guadalajara (Mexico)	3,09	2,85
Oruro (Bolivia)	3,48	3,98
Malaga (Espainia)	3,91	3,66
Rancagua (Txile)	4,35	4,38
Dublin	4,58	4,65
Guztien batezbestekoa	3,31	3,44

Hainbat zaletasun

Telebistaz bestelako zaletasunak: Internet

Telebista ikusten ez dutenean nerabeei, familiarekin eta adiskideekin egoteaz gain, Interneten ibiltzea ere gusatzen zaienez, ikerketan parte hartu dutenek Interneten erabilerari buruzko hainbat galderari ere erantzun diete.

Hasteko, Internet zertarako erabiltzen duten galdetu diete, eta gehienek komunikatzeko erabiltzen dutela erantzun dute, adiskideekin harremanetan jartzeko, Facebook, MSN edo Tuenti bidez, bereziki. Ondoren, filmak eta mu-

sika deskargatzeko baliatzen dute; informazioa kontsultatzeko gero, eta, horren ondoren, jolasteko. Azkenik, nerabeei gutxi batzuek erosi egiten dute Internet bidez.

Interneten ordu kontsumoari dagokionez, hauxe da hirien arteko desberdintasuna (beheko koadroa).

Telesailak ala kronika arrosa?

Talkshow-ak ala informazioa? Dokumentalak ala lehiaketak? Telebistan nerabeei egiten duten kontsumo aukera ere desberdina da, jatorriaren arabera. Parte-hartzaileei galdetu diete ea zer-nolako saioak gusatzen zaizkien gehien telebistan, eta Donostian eta Espainiako kasuetan, adibidez, telesailak atera dira nagusi. Aldiz, Latinoamerikako erantzunetan, talkshow-ak eta kronika arrosako programak eta lehiaketak nabarmendu dituzte.

Nerabeei ikusten dituzten saioen arabera da, halaber, gurasoek telebista-

Telebista ikustez gain, zer dute gustuko aisialdian?	
ASTE BATEAN	Zenbat ordu
Familiarekin egon	9,28
Lagunekin egon	8,78
Musika entzun	7,19
Interneten nabigatu	6,79
Mugikorra erabili	6,32
Kirola egin	4,53
Irakurri	2,60
Bideojokoak erabili	2,31
Beste batzuk	5,15

Zertarako erabiltzen dute Internet?

	Donostia	Malaga	Macoris	Rankagua	Zaragoza	Oruro	Mexico	Dublin	Guztira
Komunikatzeko (MSN, Tuenti, Facebook...)	4,31	4,48	4,12	4,33	4,54	3,25	4,56	4,44	4,21
Jaisteko (Ares, Emule...)	3,49	3,55	3,64	3,60	3,72	3,08	3,99	3,26	3,54
Informazioa bilatzeko (Wikipedia, web...)	3,55	3,59	4,49	3,79	3,71	4,13	4,01	3,10	3,84
Jolasteko	2,37	2,69	2,40	2,33	2,56	2,71	2,59	2,16	2,50
Eroste	1,43	1,36	1,51	1,25	1,46	1,32	1,45	2,29	1,46



Ikastetxeetan telebistarekin lan egin behar dugula esaten ari zaigu ikerketa hau. Lehenago filmekin edo publizitatearekin egin den bezala, telebistak eskoletan lekua eduki behar du, nerabeen bizitzetan leku handia baitauka.

rekiko duten esku-hartzea ere; kasu batzuetan, gurasoek jarrera murriztailea hartzen dute; hezigarria, besteetan; eta zenbaitetan, gurasoek seme-alabekin ikusten dute telebista. Bada, erantzunak aldatu egiten dira nerabeek ikusten dutenaren arabera, baina baita jatorriaren arabera ere.

Gurasoek jarrera murriztailea hartzen dute nerabeen kontsumoarekiko, nerabe horiek *talkshow*-ak edo kronika arrosako saioak ikusten dituztenean, horixe da Donostiako kasua, bederen, eta baita Txilekoa eta Espainiakoa ere. Gurasoek eta nerabeek telebista-ordu gehien telesailak ikusten igarotzen dituzte elkarrekin.

Ikerketak erakutsi du, gaur egun, oraindik ere nerabeek gurasoekin ikusten dutela gehien telebista, batez ere Donostian. Latinoamerikako kulturetan, telebista norberaren logelan ikusteko ohitura handiagoa dago, eta Dublinen ere antzera gertatzen da; eta, Medranoren ustez, nabarmendu egin behar da hori.



Telebista ikusten duten bitartean, egiten al dute beste ezer?

0 eta 10 bitartean baliosteko	Oro har, batezbeste	Donostian
Jan	3,65	3,41
Familiakoekin hitz egin	3,43	3,35
Telefono mugikorra erabili	2,95	2,33
Etxerako lanak egin	2,62	2,15
Irakurri	1,80	1,51
Beste zerbait	2,72	2,39

Concepcion Medranoren proposamena: telebistako edukiak hezkuntza formalean erabiltzea

Telebistaren lehen helburua irakastea edo heztea ez den arren, nerabeak entretenitzen ari diren bitartean ikasi egiten dutela jabetuta, hezkuntza formalerako proposamen zehatza egiten du Concepcion Medrano EHU-ko Psikologia katedradunak, ikerketa hau egin ondoren: “Telebistan ikusten dituzten edukiak eta pertsonaiak deskodetu eta hezkuntza formalean erabiltzea”. Balio moral, etiko nahiz sozialei buruz (justizia, ongia, adiskidetasuna, onginahia...) modu abstraktuan hitz egin beharrean, gustuko dituzten telebistako pertsonaien bidez hitz egitea proposatzen du irakasleak. “Zergatik gustatzen zaizkie nerabeei simpsondarrak edo Messi? Messik helburuak jartzen ditu, lorpenak ditu, taldean lan egiten du, diziplinatua da, umila da... Ezaugarri horietatik zerk erakartzen du nerabea? Zein neurritan du nerabearekin zerikusia?”. Horrela-

ko ariketen bidez balioei buruz hitz egitea proposatzen du Medranok.

“Ikastetxeetan telebistarekin lan egin behar dugula esaten ari zaigu ikerketa hau”, ondorioztatu du iker-tzaileak. “Lehenago filmekin edo publizitatearekin egin den bezala, telebistak eskoletan lekua eduki behar du, nerabeen bizitzetan leku handia baitauka”. Telebista edo telebistako edukiak ikastetxeetan noiz eta nola erabili behar diren jakiteak kezkatu egiten ditu irakasleak, ulertzen du hori Medranok; baina ikertzaileak dio “telebistarako gaitasuna” landu egin behar dela hemengo hezkuntza sisteman, atzerrian egiten ari diren bezala. “Nik zabaldu nahi dudan mezua da telebistak hezi egiten dituela nerabeak, nahiz eta ez izan hori haren helburu nagusia, eta, ikerketa honek eta beste askok erakusten duten moduan, telebistak nerabeen bizitzan hainbeste ordu hartzen baditu –oro har, familiak duen adinako leku du telebistak euren bizitzetan–, gaia landu egin behar dugu hezkuntza formalean”.

joxe amiama

ELKARRIZKETA

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

“Eskola eta familia helburu bera duten bi sistema desberdin dira. Elkar onartu behar dugu eta gizatasun handiagoz jokatu”



“Familiei eta eskolei buruzko jarrera baikorra eduki behar dugu. Irakasleak jakin egin behar du familiak biziraun egiten duela, eta familiak jakin egin behar du irakasleak ere biziraun egiten duela. Baina, era berean, jakinik gure saiakerak onak direla eta aurrerantz goazela. Horrexegatik nahi ditugu estrategia batzuk ikasi

”

Irakasle ikasketak egin zituen Joxe Amiama tolosarrak eta ondoren Atzezin aritu zen 14-15 urtean lanean. Gero, Psikopedagogia ikasi zuen eta familiaren gaiarekin lotutako ikasgai bat izan zuen han. Memento hartan lehen haurra izan zuen eta asko erakarri zuen ikasgai hark: “hemendik bideratuko dut nire profesionaltasuna”, pentsatu zuen. Eta hala izan da. Geroztik, ez du lortu gai horretatik aldentzerik edo askatzerik.

Atzezin zuen lana utzi eta guraso eskolak eta antzekoak antolatzeari ekin zion. Mondragon Unibertsitatean urtebete jardun zen eta oraindik ere kolaboratzen jarraitzen du, betiere familiaren eta eskola inklusiboaren gaiekin lotutako kontuetan.

Bien bitartean, Donostiako Irakasle Eskolan aritu da eskolak ematen sei urtetan, eta aurten du lehen ikasturtea Filosofia eta Hezkuntzaren Zientzien Fakultatean.

Guraso eskolekin, irakasleekin eta Berritzeguneekin aritu izan da. Berritzeguneetan eta ikastetxetako klastroetan une honetan elkarbizitza planak aurrera ateratzeko, familia eta irakasleen arteko harremanak nola hobetu ari da garatzen eta irakasle eta gurasoei formazioa ematen dihardu.

Eta etxeko esperientzia ere ezin ahaztu. Bi seme-alaben aita izanik, hori ere ikasketa iturri izan da.

Alde biak ezagutzen ditu, beraz. Eta ondorio bat, behintzat, argi atera du: familiei eta eskolari buruzko jarrera baikorra eduki behar dugula. Denok ari gara ahaleginak egiten, eta ikuspuntuak leundu behar ditugu, gizatiartu egin behar dugu, Joxe Amiamaren ustez.



Familia eta eskolaren arteko harremanaz hitz egiten hasi aurretik, goazen bakoitza banaka hartzera. Familia. Nola ikusten duzu familia gaur egun?

Entzuten eta irakurtzen dugunarekin oso markatuta dago familia, eta, badirudi, familiak gaizki egiten ari direla, ez dakitela zer egin, permisiboegiak direla... Eta nik beti esaten dut ahal duguna egiten dugula, biziraun egiten dugula. Eta uste dut hori garrantzitsua dela. Orokorrean familiak gauzak ongi egiten saiatzen dira. Eta hainbat okasiotan ez da erraza lana eta familiaren egitekoak bateratzea. Orduan, nik uste dut, orokorrean, familiaren jarrera baikorra dela eta seme-alabak aurrera ateratzen saiatzen direla. Hori da familiaz esan nahi dudana lehendabiziko gauza.

Bigarren gauza zera da: badakigu familia bakoitza desberdina dela, bakoitzak bere eskemak dituela, aldaketa asko suertatzen direla familietan (esate baterako, bere sisteman orekatuta dagoen familia batean, une batean aitona edo amona gaixotzen bada, horrek aldaketa batzuk ekartzen ditu). Mugimendu asko egoten dira eta, horregatik, familia bakoitza bakarra da.

Eta hirugarren gauza, gaur egun, nire ustez, oso garrantzitsua dena: familien artean dagoen aniztasuna. Historikoki familia nuklearra izan da erreferentia eta badirudi hori dela familia ona, hortik kanpora daudenek (bikote bakarrekoak, bananduak...) ezin dituztela bete haren funtzioak. Ikerketetan, ordea, frogatuta gelditu da hori ez dela horrela. Halere, kulturalki oso barneratuta daukagun ideia da. Esate baterako, autoak saltzeko iragarkian familia bat agertzen baldin bada auto barruan, beti

familia nuklearra izaten da: bikote oso ederra aurrean, oso sinpatikoak eta alaiak, eta atzean eztabaidatzen ez duten semea eta alaba... Eredu hori nahiko barneratuta dago. Dena dela, lehen-goan, zorionez, beste eredu bat ikusi nuen: banatuta zegoen gizon bat zihonan autoan eta semea eta haren laguna eramane zituen aurrean. Gero, bikote berriaren haurraren bila joan zen. Polita izan zen, beste era bateko familiak badaudela adierazten baitzuen iragarkiak. Gaur egun aldaketa garrantzitsua da familien artean dagoen aniztasuna eta aintzat hartu beharrekoa. Horregatik, eskolak ahalegin berezia egin behar du aniztasuna hori lantzeko.



Zer esan nahi duzu horrekin?

Harremanetarako giltza edo boterea irakasleak dauka eta hori ikerketa guztietan azaltzen da. Irakasleek esan dezakete eta esaten dute “edozer gauza baldin badaukazue, deitu lasai asko”. Bai, baina, bidea errazten baldin badute beraiek deituta, harremanak erraztu egiten dira. Zeren, beraiek erabakitzen baitute bilera noiz egin edo noiz ez egin, ikasle batzuekin bai eta beste batzuekin ez... Giltza beraiek daukate, eta, beraz, beraiek erraztu behar dute bidea eskolan.

Orduan, bide hori erraztean, familien artean dagoen aniztasuna kontuan hartu behar dute. Hau da, gurasoak bananduta baldin badaude eta haurrak amarekin bizi baldin badira, aita informazioa jasotzen al du? Zeren, normalean, oharrak etxera bidaltzen dira eta hor, azpian, familiaren pertzepzio bat dago: nork osatzen du familia? Etxean bizi direnek. Eta aita ez baldin bada beraiekin bizi? Irakasleek zera pentsa dezakete: “berak esan dezala”. Bale. Baina, nola boterea eskolan dagoen, hurbil zaitezte zuek eta aipa iezaiozue “informazioa jaso nahi al duzu?”. Hurbil daitezela irakasleak. Gizatasun horrekin hurbilduz gero, normalean erantzuna baikorra izaten da eta eskolak irabazten du, zeren beste aliatu bat baitauka haurraren heziketa aurrera ateratzeko.

Lehen ez zeuden hainbeste kasu,

baina gaur egun bai. Eta agian, bilera batean hiru aulki jarri beharko dira: aita, ama eta amaren bikote berriarentzat, orain aitaren funtzioa betetzen ari dena eta atxikimendu bat egiten ari dena. Agian, hirurek egon nahiko dute. Zer-gatik ez jarri, orduan, hiru aulki?

Ez da gauza bera 20 haur eta 20 familia edukitzea edo 20 haur eta 25 familia. Beste planteamendu batzuk sortzen dira eta horrek ahalegin bat eskatzen du. Nik uste dut eskolak bere ikuspuntua zabaldu egin behar duela zentzu horretan.

Zertan aldatu dira familien balioak orain dela urte batzuetatik hona?

Historikoki une batean planteamendu autoritarioak ziren garrantzitsuenak. Boterea gurasoek zeukaten, batez ere gizonak. Aitak esaten zuena egin behar zen, aita etorri arte ezin zen bazkaldu, aitak bere sofa zeukan, mahaiburua aita zen... Erreferente batzuk argi zeuden. Balioak mantendu egiten ziren eta belaunaldi batetik bestera pasatzen ziren. Nahiko normala zen aita arotza baldin bazen semea ere hala izatea, eta aita arkitektoa edo medikua baldin bazen familia osoa arkitektoa edo medikua izatea.

Gero, gauzak aldatu egin ziren eta beste muturrera joan ginen. Nahiko permisiboak bihurtu ginen orokorrean eta

balioak aldatu egin ziren: haurra bihurtu zen ardatz. Mahaiburua haurra zen, sofa haurrarentzat zen... Zentzu horretan, oso bitxia da, baina haur txikiak dituztenek autoan Pirritx eta Porrotx eta pailazo guztiak dauzkate. Hori historikoki aldaketa handia izan da, hor ikusten da nork agintzen duen.

Aldaketa hori, nire ustez sinesmen bat izan zen. Zera pentsatu edo sinetsi genuen: ni ongi portatzen baldin banaiz nire seme-alabekin eta maitasun asko ematen baldin badiet, seme-alabek txanpon berarekin ordainduko didate eta dena ongi joanen da. Baina hori ez dela horrela konturatu gara.

Gaur egun, balio eta planteamendu aldetik erdiko bidetik joaten saiatzen ari gara, batzuetan planteamendu autoritarioagoekin eta beste batzuetan permisiboagoekin. Balio aldetik, orokorrean, seme-alabentzat bi eredu dauzkagu, bi hitzetan esateko:

1- Eredu zintzoa, zintzotasuna ardatz duena, gure belaunaldiak jaso duena: errespetua helduei, helduak esaten duena bete behar dute hurrek...

2- Arduratsuak izatea. Gaur egun haurrak zintzoak izateak ez du balio, baizik eta arduratsuak izateak. Eta hor aldaketa bat dago. Arduratsua izateko ez da errespetua gorde soilik egin behar, baizik eta alde bikoia izan behar du errespetuak, gorantzkoa eta beherantz-

“ Helburu bera
dugu eta hori da polita.
Guraso gisa, semea edo
alaba arduratsua izatea
nahi dugu, berak
bakarrik ohea egitea,
adibidez. Eta eskolak ere
ikasle arduratsua nahi
du, etxerako lanak berak
bakarrik egiteko.
Horregatik, helburu bera
dugunez, hainbat gauza
batera egin behar
ditugu ”

koa. Arduratsua izateko ez da aitak edo amak esaten dutena bete behar, baizik eta norberak aurkitu behar du egiten duenak ondorio batzuk dituela.

Horrek, noski, eskemak aldatzea dakar, bai familiaren baitan eta bai eskolan.

Azalduko al diguzu zehatzago arduratsua izateak zer esan nahi duen eta zer aldaketa dakartzan heziketan.

Familian eta eskolan dauden balioak eta gizartean daudenak nahiko lotuta joaten dira. Nik ez dakit zein den lehendabizikoa. Orduan, memento historiko batean gizarteko eredua oso hierarkikoa zen, eta orduan, familietan ere planteamendu hierarkikoa egiten zen balioen aldetik. Gaur egun, berriz, gizarteak jende autonomoa, arduratsua, ekintzailea, erabakiak hartzeko gaitasuna duena, estresa eta antsietatea kontrolatzeko gai dena... behar du. Elementu horiek dira garrantzitsuak gizartean. Zintzoak izateaz gain, ardurak hartzeak beste elementu bat dakar: erabakiak hartzea. Gaur egun erabakiak hartzea oso garrantzitsuzat jotzen da gizartean. Eskolak ere bere gain hartu ditu balio horiek (horregatik dator konpetentzien kontzeptua). Eta, noski, horrekin lotuta, familietan ere planteamendu arduratsua gero eta garrantzitsuagoak dira.

Eredu berri hori berez ateratzen al da ala ikasi egin behar da?

Askotan sen kontua da. Senari jarraituz gero, nahiko ongi moldatzen gara. Nik uste dut familietan asko pentsatzen dutela haurrez heziketaz, zer egin, nola egin... Adibidez, Eguberrietan jendeak pentsatzen du oparien kontuarekin zer den funtzionalagoa, zer ez, zenbat opari... Gero, familia bakoitzak bere planteamenduak dauzka, baina, orokorrean, nik uste dut gaur egun pentsatzen dela zer den hobea haurarentzat.

Edonola ere, guk historikoki balio batzuk, erabatzuk, eta batez ere, diziplinatzeako era batzuk jaso ditugu. Oso funtzionalak ziren, batez ere eredu zin-



tzoa lantzeko. Berriz, ardura landu nahi baldin badugu, diziplinatzeako eta estimulatzeako eskema batzuk aldatu egin behar ditugu. Eta hori bai, batzuk senarekin egiten dute, eta beste batzuentzat guraso eskolak eta horrelakoa interesgarriak dira hausnarketak egiteko.

Esate baterako, garai batean balio batzuk aurrera ateratzeko zigorra erabiltzen zen, eta gaur egun, ardura eta ondorioekin lotutako beste elementu batzuk erabiltzen dira. Orduan, hori bai, batzuk ikasi egin behar dute beraien eskemak garai batekoak direlako eta gaur egungo eskemetan ez dutelako balio.

Adibidez, garai batean, etxean gustura ez baldin bazeunden, berehala esaten zizuten “ez bazaude gustura, hartu atea eta ospa”. Zeren etxea gurasoena baitzen. Gaur egun, ordea, errekurtsio horrek ez dauka zentzu handirik, zeren gaur egun etxea denona dela ulertzen da, ez gurasoena bakarrik. Orduan, hori beste errekurtsio mota batzuk erabili behar dira.

Eta gauza bera estimulazioekin. Garai batean gurasoek “oso ondo” espresioa erabiltzen zuten estimulatzeako, baina oso gutxitan erabiltzen zuten. Noizbehinka. Orduan, botere handia zeukan. Aitak balorazio on bat egitea... uu... ikaragarria zen. Gaur egun, aldiz, egun batean 37 aldiz “oso ondo” esanda, logikoa da pentsatzea ez daukala hainbesteko indarririk. Beste era batzuk erabili behar dira. Eta hori bai, agian, partekatu, ikasi... egin daiteke.

Har dezagun orain eskola. Nola ikusten duzu eskola gaur egun?

Nik uste dut instituzio garrantzitsua dela, eta garrantzitsua denez, baloratu egin behar dela. Gure haurrek eta gazte-

ek ordu asko igarotzen dituzte eskolan, eta nik uste dut han daudenak zaindu egin behar ditugula. Zentzu horretan, orokorrean ahalegina egiten ari garela uste dut.

Azken batean, aurreiritzi asko dau- de familien gainean (permisiboegiak direla...) eta baita irakasleen gainean ere (oporretan soilik pentsatzen dute- la...). Eta nik uste dut hori ez dela egia. Balorazio ona egin behar dugu guraso gisa. Gure seme-alabek ordu asko pasa- tzen dituzte, eta guk, guraso gisa, han egiten dutena bultzatu eta lagundu egin behar dugu, hitz politikak aipatu behar di- tugu.

Ez badugu baloratzen, zer ari gara egiten gure seme-alabekin? Baloratzen ez dugun leku batera bidaltzen?

Eskola memento honetan krisian dago, hau da, aldaketa batean. Mundua aldatu egin da eta eskolak ere aldatu egin behar du. Lege berriekin eta abar, kompetentzia kontzeptua sartu da. Eta horrek aldaketa batzuk dakartza. Histo- rikoki kontzeptuak oso-oso garrantzi- tsuak izan dira, baina, gaur egun, kon- tzeptu ia gehienak Interneten daude. Orduan, eskolak irakurketa baikorra egin behar du: hortik pisu bat kentzen baldin badugu, gehiago landu ditza- kegu prozedurazko elementuak (nola aprobetxatu Interneteko informa- zioa...) eta jarrerazko elementuak (non sar naiteke, non ez, non daude arris- kuak...). Elementu horiek berriak dira, eta eskola, arlo horretan bide berria egi- ten hasi da. Horregatik, gaur egun, eskola lan garrantzitsua egiten ari da eta egin beharko du aurrera begira.

Eskola eta familia. Helburu bera duten bi sistema direla diozu. Zein da helburu hori? Norantz doaz?

Helburua haurraren garapena da, haurra edo gaztea ongi sentitzea bai bere buruarekin eta bai gizartean, eta ongi kokatzea. Garapen integrala da, hau da, fisikoa, kognitiboa, emozionala, sozia- la... Eta hori denok nahi dugu: eskolak nahi du eta familiak ere nahi du. Or- duan, helburu bera dugu: haurra, bere neurrian, zoriontsu izatea.

Helburu bera daukagu eta hori da polita. Guraso gisa, semea edo alaba arduratsua izatea nahi dugu, berak ba- karrik ohea egitea, adibidez. Eta esko- lak ere ikasle arduratsua nahi du, etxera- ko lanak berak bakarrik egiteko. Horre- gatik, helburu bera dugunez, hainbat gauza batera egin behar ditugu.

Zein da gauzak batera egiteko dugun zailtasuna?

Bi sistema desberdin direla eta sarri- tan elkar inbaditzen dugula. Bakoitza bere sistemako estrategiekin, eskeme- kin eta egiturekin joaten da beste siste- mara eta bestea inbaditua sentitzen da. Esate baterako, irakasle batzuk gaizki sentitzen dira organo gorenean edo beste batzorde batean familiek progra- mazio aldetik zer bait gaizki dagoela esaten baldin badute. Eta alderantziz, familia batzuek gaizki sentitzen dira ira- kasleek zehatz-mehatz etxean zer egin behar duten esaten dietenean. Zeren, etxea etxea baita, eta eskola eskola.

Gainera, sistema batean balio due- nak beste sisteman ere balio duela pen- tsatzen dugu, eta ez da hala. Adibidez, Haur Hezkuntzan, eskola gehienetan, normalean jostailuak jasotzeko musika jakin bat jartzen dute. Andereñoak “go- azen jasotzera” esaten du, eta haur de- nak jasotzen hasten dira. Zoragarria. Etxera joan, musika jarri eta ez da ezer gertatzen. Eta ez da familia batean soilik gertatzen den kontua, andereño horri berari ere gertatzen zaio bere etxean. Etxean ez dio funtzionatzen.

Ezin dugu besterik gabe batetik bes- tera pasa. Sistema desberdinak direla ja- kin behar dugu. Beste sistemakoei bes- te planteamendu eta estrategia batzue- kin lagundu behar diegu. Familiak, esa- te baterako, jakin behar du bere seme edo alaba hori zer den irakaslearentzat. Zeren, tutorea baldin bada, beste 20 haur izango ditu eta ezingo dio etxean e- giten dioten jarraipenik egin. Hori jakin egin behar du familiak.

Orduan, hori jakinda, sistemak oso ondo zaindu behar dira. Niretzat, oina- rrizko elementu da hori. Oso-oso oina- rrizkoa da bi sistema direla onartzea eta



errespetatzea. Gertatzen dena da, beti besteei gurea inposatzen saiatzen gare- la: familia irakasleei, irakasleak fami- liei... eta hor borroka batzuk sortzen dira.

Nola zaindu daitezke sistemak?

Lehenengo gauza, onarpena da. Bi sistema desberdinetatik gatoz, bakoitza bere ikuspuntuarekin. Zeren hainbat kasutan, haurra desberdin ikusten da: etxean ez du hori egiten, eskolan ez da horrelakoa... Zergatik esaten ditugu horrelakoak? Bi sistema desberdinetatik gatozelako. Denoi gertatzen zaigu hori. Testuinguru anitzetan, elementu askotarikoak egoten direnez, ez dugu modu berean jokatzeko, ez gara pertso- na berak lanean eta etxean.

Horregatik, gauzak batera egiten baldin baditugu, lehenbizi, bestea beste sistematik datorrela onartu behar dugu. Ama batek inoiz ez du ikusiko ikasle bat, inoiz ez, alaba edo semea ikusiko du. Eta nahiz eta 16 urte izan,

“ Irakasleak ezin du familiako bat irakasle bihurtu, zeren haren rola amarena, aitarena edo familiako batena baita. Eta hori rol bat da, eta irakaslearena beste rol da. Hori bereizi egin behar da. Hori aintzat hartuta, eta helburu bera dugula kontuan izanik, egokitzapenak egin behar dira funtzioekin: nik, irakasle gisa, zer egin dezaket, eta zuk, familiako gisa, zer egin dezakezu.

”

“nire umea” esango du. Eta irakasleak, aldiz, inoiz ez du ikusiko maitasun horrekin haurra, ikaslea ikusiko du. Familiak jakin egin behar du gelan 20 haur daudela, eta ez bat edo bi, etxean bezala. Irakasleak, berriz, jakin egin behar du harremanak oso kutsatuta daudela emozio aldetik. Hori guztia garbi eduki behar dute planteamendu bat egiten dutenean. Irakasleak ezin du familiako bat irakasle bihurtu, zeren haren rola amarena, aitarena edo familiako batena baita. Eta hori rol bat da, eta irakaslearena beste rol da. Hori bereizi egin behar da.

Hori aintzat hartuta, eta helburu bera dugula kontuan izanik, egokitzapenak egin behar dira funtzioekin: nik, irakasle gisa, zer egin dezaket, eta zuk, familiako gisa, zer egin dezakezu. Eta hori jolastu behar dugu. Egiten diren bilertan funtzioak argitu egin behar dira, aurretik zehaztu behar dira gero gaizkiulertuak eta haserreak egon ez daitezen. Esate baterako, batzorde bateko bilera bat ez da norberaren haurraz hitz egiteko lekua, horretarako tutorearekin egiten diren bilerak daude. Horregatik diot aurrez ongi definitu eta bereizi behar direla funtzioak eta ondoren egokitzapenak egin.

Rolak nahasten baldin badira, gatazkak sortzen dira. Rolak zehaztea oso garrantzitsua da eta ezin ditugu nahastu.

Inbadituta sentitzen baldin bagara, akabo.

Bai, hala da. Behin baino gehiagotan hainbat irakasle horrela sentitzen dira eta hainbat familiar ere bai. Orduan, argitu egin behar da bakoitza zein sistematik datorren eta bakoitzaren egitekoa zein den. Eta adostu.

Zer egiten da elkarbizitza planetan? Zer lantzen da bi sistemen arteko harremana hobetzeko?

Konpetentzien aldetik aldaketa gertatu da. Garai batean eduki kontzeptuak ziren garrantzitsuak: zenbait ibai zeuden jakitea, fotosintesia eta krorofi-



la

zer zen

jakitea... Ho-

riek gaur egun ere beren garrantzia dute, baina beste gauza batez konturatu gara: gero eta harreman gehiago dauzkagula eta izango ditugula gure bizitzan osoan zehar. Esate baterako, garai batean telefono finkoei memoria jarri zieten. 20 telefono zenbaki gordetzeko memoria zeukaten eta erdiak soberan genituen. Familiar batzuk, lagun pare bat eta, gainerakoak, soberan. Gaur egun, ostera, telefono mugikorra hartzen badugu, 200 zenbaki dauzkagu sartuta eta memoria beteta, faltan.

Orduan, elkarrekiko harremanak, non gauden kokatzea... oso-oso garrantzitsua da. Horregatik, gaur egun, eskoletan helburu garrantzitsua bihurtu da hori konpetentzien aldetik. Eta hori lantzeko daude elkarbizitza planetan.

Elkarbizitza planetan, alde batetik, irakasleak daude hainbat arlo lantzeko: gelan harremanak nola zaindu lantzeko, nola bideratu gatazkak gelan, nola egin bitartekaritza lana, diziplina baikorra eta abar. Beste aldetik, gurasoak daude (egia esan, gurasoen parte-hartzeak arrakasta gutxi izan du eskola gehienetan). Gurasoek ere hainbat gauza hausnartzen dituzte: nola landu elkarbizitza etxean, zer egin daitekeen ikastetxean... Eta gero, ikasleak daude. Horiekin batez ere tutoretza orduetan lantzen dira sortzen diren gatazkak.

Egia esan, ez dira gauza berriak. Hainbat irakasle betidanik saiatu da gauzak ongi bideratzen. Baina, orain, denen artean egitea, gauza berriagoa da. Hasieran talde bakoitzak bere alde tik lantzen ditu gaiak eta gero, mahai gainean jarri eta denen artean erabakitzen da zer egin daitekeen, nola bidera daitezkeen gatazkak ikasle-eme-ala-

bak gizarte honetan konpetenteago eta arduratsuago izateko eta abar.

Oro har, zer sentsazio jasotzen dute? Gustura al daude?

Nik uste dut elkarbizitza planak ez zaizkiela ongi "saldu" familiei. Familiek jakingo balute zein garrantzitsua den elkarbizitza plana seme-alabak besteekin hobeto kokatzeko, frustrazioak hobeto toleratzen ikasteko, gauzak nola eskatu behar diren jakiteko, asertiboagoak izateko, kexa bat nola adierazi ongi jakiteko... Eskoletan hori landu nahi dutela jakinda, familiek askoz gehiago parte hartuko luketela iruditzen zait. Bai, konbentzituruta nago.

Nire esperientzian hori ikusi eta egiaztatu dut. Guraso eskola bat udal-txe bidez-edo baldin badago antolatuta, baina ikastetxeko proiektuarekin lotura handirik gabe, jendea joaten da, baina askoz gehiago joaten da familia eskolako proiektuaren eta dinamika-
ren barruan baldin badago. Euren seme-alabentzat ongarria dela ikusten

baldin badute, horrelako planak eta proiektuek askoz indar gehiago hartzen dute.

Horregatik diot nire esperientziak zera erakutsi didala: familiek eta eskolarekin biek batera lan eginez gero, lehendabizi bakoitzak bere elementu bereziak eta gero beste elementu batzuk batera, familien erantzuna askoz altuago izaten da.

eta beste gauza bat: oso garrantzitsua da seme-alabek jakitea familia eta eskola elkarlanean ari direla.

Zer behar edo eskaera dituzte familiek eta irakasleek elkarbizitza lantzeko?

Orokorrean estrategiak eskatzen dituzte, bai irakasleek eta bai gurasoek. Esate baterako, zigorra erabili beharrean zer egin dezaketen haurrak arduratsuak izan daitezke. Ongi dago zein estrategia dauden jakitea, zeren, bestela, badirudi, zigorra dela bide bakarra, eta ez da hala, beste gauza batzuk egin daitezke. Orduan, hori ere ikasi egin behar dugu.

Baina, nire ustez, estrategiak edukitzea ongi dagoen arren, garrantzitsuena norantz joan nahi dugun jakitea da. Hori da gakoetako bat. Hori argi edukita, senari eta logikari jarraituta gauzak ateratzen dira.

Adibidez, zigortzen dudanean, zerregatik egiten dut? Besteak jakiteko ni indartsuago naizela eta nik esaten dudana egin behar duela? Hori baldin bada planteamendua, oso zorrotza naizela eta zigor handia jarriko diodala ikusi behar du. Aldiz, nire helburua egin duenak ondorio batzuk dituela eta ardurak hartu behar dituela ikus dezan baldin bada, bigarren edo hirugarren aukera emango diot gauzak hobeto egiteko, zeren, helburua, berak ikastea baita. Hori bai, aukerak ematerakoan beti zein ondorio eduki ditzakeen jakinaraziko diot. Kasu batean zein bestean, gure begirada ez da berdina. Horregatik diot garrantzitsua dela norantz goazen jakitea.

Zeren, azken finean, nire ustez, onartuak sentitu nahi dugu. Saiakerak

egiten ditugula, batzuetan asmatzen dugula eta beste batzuetan hanka sartzen dugula jakin dezaten nahi dugu. Joko horretan bizi garela. Eta hori, besteak ikusi egin behar du. Horretaz konturatzeko, asko errazten da giroa.

Nik beti esaten dut iraun egiten dugula. Lanean iraun egiten dugu, batzuetan ondo eta beste batzuetan gaizki. Etxean ere biziraun egiten dugu, batzuetan ondo eta bestetan gaizki. Horregatik, familiak nolako izan behar duen esatea, zer egin behar den zehaztea... denok biziraun egiten dugu-eta! Zer esan behar duzu? Orduan, irakasleak jakin egin behar du familiak biziraun egiten duela, eta familiak jakin egin behar du irakasleak ere biziraun egiten duela. Baina, era berean, jakinik gure saiakerak onak direla eta aurrerantz goazela. Horregatik nahi ditugu estrategia batzuk ikasi eta saiatu, nahiz eta jakin saiakerak ez direla errazak.

Ez dugu "egin behar duguna" eta "egin behar duguna" rekin itsutu behar, ez guraso gisa eta ez irakasle gisa. Bestela, gehiegi eskatzen diogu geure buruari. "Egin behar duguna" aintzat hartu beharrean, saia gaitezen aurrerantz joaten. Hori da egin behar duguna. Bikaintasunerantz, baina pixkana. Gorbata jantzi beharrean, gizatasun handiagoz jokatu behar dugu. Eta elkar onartu. Nik uste dut hori oinarri-oinarritzkoa dela; elkar onartzea eta gizatiaragoak izatea.

Haur batek bihurrikeria bat egin zuen eta irakasleak zera esan zion: "zure aitarekin hitz egin nahi dut". Eta haurrak erantzun: "gaurkoa ala lehenago-koa?". Alegia, orain nire amarekin bizi dena, nire aita biologikoa... zehazki norekin hitz egin nahi duzu? Esadazu argi. Adibide horrek argi erakusten du eskolak gaur egungo familien aniztasuna aintzat hartu behar duela.



Hamalau hazi

Garapenerako Hezkuntzako esperientziak

Garapenerako Hezkuntzari curriculumaren barruan zilegitasuna eman behar zaiola kontuan izanda, eta eskoletako eguneroko dinamikan sartzearen garrantzia ikusita, 4 urteko haurren ikasgelan garatu ditugun zenbait jardunbide egoki aurkeztera animatu naiz, **Garapenerako Hezkuntzako esperientzia simple baten berri emanez, beste irakasle batzuk hezkuntza lerro hau lantzerantz animatuko ditudalakoan. Era berean, hezkuntza hobetzeko proposamen bat da, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuetan Garapenerako Hezkuntzaren oinarriak sartzearen eztabaida eta hausnartze beharra eragitea da nire asmoa.**

Hezkuntza prozesu parte-hartzaile, etengabe eta transformazionala gisa ulertzen dugu Garapenerako Hezkuntza; kontzientzia kritiko eta eraikitzaileekin, herritartasun aktiboa eta solidarioa bultzatu behar du, gizartean erabateko transformazioa bideratzeko eta giza garapen jasagarria erdiesteko.



Konsue Salinas

Proiektuaren laburpena

Gure artean 4 urteko haurren ikasgelan gertatu izan diren hainbat egoeratik abiatuta, hainbat proiektu garatu eta hainbat esperientzia bizi izan ditugu, aberasgarriak eta ahaztezinak guztiak; munduan bestelako errealitate batzuk badirela erakutsi digute gertaera horiek, eta guztiok izan gaitezkeela aldaketarako agente.

Proiektuaren helburuak:


- Garapenerako Hezkuntza zer den ezagutaraztea, eta ikastetxeko eguneroko dinamikan sartzeko beharra sartztea.

- Garapenerako Hezkuntzarako jardunbide egokiak eta erakusteko modukoak diren esperientzia sinpleak ezagutaraztea, eta edozein etapatan hezkuntza lerro horri jarraitzerantz animatzea irakasleak.

- Ikastetxean "beste" errealitate batzuk "bizi" errealitate "enpatia" gaitasuna garatzea.

- Adin txikietatik hasita, balioetan oinarritutako heziketaren beharra aztertzea eta horretan sakontzea.

- Kulturarteko balioen, balio solidarioen, kooperazioaren, elkar ulertzearen, errukiaren, tolerantziaren eta horrelako balioen inguruko praktikak eta hausnarketak areagotzea, eta baita aukera berdintasunaren eta desberdintasunaren inguruan hausnarratzea ere.



- Ikasleak, irakasleak, familiak eta gizartea sentiberatzea.

- Herritarrak zentzu kritikoan heztea, aldaketarako agente izatea eta horretarako aukera ematea, "elkartasun kultura" sortzeko.

- Elkarbizitza-giroa suma dadin arduratzea, "kulturaniztasuna" sustatzeko eta gizarte kohesioa eta bakea balioesteko.

- Eskolaren esparru itxia gaintitzea eta eskola "dinamikoa" eta "dinamizatzaila" bilatzea, "herritar hezitzaileen" ildotik, herrira, auzora, hirira ateratzen den eskola, hezten duena eta gizartea aldatzen duena, sortzeko.

- Gainerako irakasle, langile eta familiak elkartasun proiektuetan sarraraztea.

- Hobekuntzarako proposamen bihurtzea, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan Garapenerako Hezkuntza sartzeko behar den elkarriketa gauzatzea.

ZENBAIT PROIEKTU ESANGURATSU

Proiektuak, eskuarki, modu naturalean sortzen dira, edo haurrek bultzatutako proposamenetatik. Horietako batzuk urte osoan zehar landu dira, eta beste proiektu batzuek luzaroago irauten dute. Garrantzitsua da ulertzea, ekintza puntualak baino gehiago, **eternik gabeko proiektu** baten parte direla.

Agurra: hainbat hizkuntzatan agurtuz hasten dugu eguna: "Salam malekum, Malekum salam; egun on; buenos días; good morning; bonjour; denaieesteli (Etiopia), maaxi (Ghana); nihao (Txina); kir-kir (oilar batek)...". Eta beste batzuk gehituz goaz...

Erosiko al didazu muturreko bat?: Guatemalatik eskumuturrekoak eta horiek saldu zizkidaten neskatoen argazkiak ekarri nizkien. Aukera desberdintasunaren gaira inguratu ginen



MAURITANIARAKO AHUNTZA OPARITZEN DIZUET

PROIEKTUA: KANPAINA-OSPITALA



"...HAITIN GAUDE, NON KANPAINA-OSPITALA JARRI DUGUN... SENDAGILE-BOLONDRESAK GARA ETA TE HARTZEN ARI GARA (MAURITANIA, SAHARAN... EGITEN DUTEN BEZALA) ATSEDEFNA

horrela, eta eskolara joateko ezintasunaz hitz egin genuen. Neska-mutilen izenak ezagutu genituen, eta baita Guatemalako izen ohikoenak ere. Sumendi bat ere egin genuen, eta lehertu egin zen egun batean.

Eta azkenean Halina iritsi zen:

Dainaren ahizpa da; urte osoan itxaroten egon ginen, adoptatu egin behar baitzuten. Halinak bere jaioterriko jolasak erakutsi zizkigun, dantza egin genuen... Lantegi horrekin, adopzioaren gaia hurbilagotik ezagutu genuen, eta kontsumoaz hitz egiteko aukera eman zigun, jostailuen kopuru gehiegizkoaz, eta jolasteko lagunak izatearen garrantziaz.

Mauritaniarako ahuntza (besteentzako opariak): Olentzerok bi arrain eta oso opari berezi bat ekarri zizkigun: ahuntz bat Mauritaniarako (Intermon Oxfam). Familiei herrialde horri buruzko informazioa eskatu genien. Harritu egin gintuen Mariata Ajibuk bere ardurapean zazpi biloba izateak, eta hau esateak: "Ahuntzak emango didan esnearekin, hobeto elikatu ahal izango

ditu". Mauritaniako bizi estiloa ezagutu genuen, jaima bat egin genuen, tea hartu genuen, eta hondar-erauntsi bat ere antzeztu genuen. Gure pasabidean, munduko neska-mutil guztiei hitza eman genien, eta hiru gauza eskatu genizkion urte berriari: jana, botikak eta eskolak.

Larrialdiko erietxe bat: behin, albigietan ikusi genuen Mauritaniar botikak eta medikuak behar zituztela, eta gure jaima larrialdiko ospitale bilakatzera erabaki genuen. Familiek ekarri zizkiguten medikuntzako tresnak. Batzuk medikuz jantzen ziren, eta besteek gaixoarena egiten zuten (enpatia). Pasabideetan zehar, Mauritaniarako bidaia luze eta neketsu bat antzeztu genuen. Hurrengo batean, Haitira joan ginen, lurrikara bat jazo zelako han. Haurrek mapamundian kokatzen dituzte ezagutzen ditugun herrialde berriak: Guatemala, Haiti, Sahara, Mauritania, Etiopia... "Boluntarioak" eta "botikak izateko eskubidea" gaiak aztertu ditugu.

Ijito baten antzera zoaz: topikoak



eta estereotipoak hautsiz. Behin, neskatok batek esan zidan: "Ijitoaren antzerara zoaz" (ilea elektrifikatu egin zitzaizdan jertsea kentzean). Esan ohi ditugun esaldi batzuek eta horiek dituzten konnotazioez hausnartzen hasi ginen. Flamenko lantegi bat egin dugu Sayeliren familiarekin (ijitoa da), eta guztiok joango gara geure familiarekin Sayeli dantzatzen ikustera. Buelta eman diegu esaldiari: "Ijitoaren antzerara zoaz!" zena "Ijitoa bezain polit zoaz!" bihurtu dugu orain.

Zer da hori?: Lurrari buruz ikusi genuen erakusketa batean, desnutrizioa zuen mutiko baten argazkia ikusi genuen. "Zer da hori?", galdetu zuen Leirek. "Desnutrizioa duen ume bat", esan nion. "Aaj, ze nazka!", erantsi zuen neskatok batek. "Badakizue? Guk lagun diezaiokegu, ahi berezi bat bidaltzen badiogu, sendatu egingo da", esan nien. Ezin duzue imajinatu ere egin nola ireki zituen Iraiak bere begi urdinak, eta nola begiratu zidan! Hori gertatu ondoren, gaia eskolan lantzerako animatu nintzen. Mugarik Gabeko Medikuei material sorta bat eta RUFT poltsa bat (ahia) eskatu nien; eta neurgailuak ere bidali zizkiguten. Orain, badakigu desnutrizioa senda daitekeela!

Ama Lurra: Unibertsoaren gaia lantzerakoan, ohartu gara Lur planetan bakarrik dagoela bizitza pentsatzen dugula, eta ezin gaitzkeela beste planeta batera joan. Eta ondorioztatu dugu bizi dugun Lurra zaindu egin behar dugula.

Nor da gaur makinista Etiopian?: "Errutinak" egitean, telefonoz hitz egin genuen (jolas sinbolikoa da) Etiopiako gure adiskideekin, munduko beste neska-mutiko batzuekin lotura afektiboak sortu genituen, eta euren izenak eta nahiak ezagutu genituen.

METODOLOGIA ETA ASPEKTU BERRITZAILEAK:

Gure ikasgelan, haurra bere ikasketako protagonista sentitzen da. Metodologia globalizatu, aktibo eta malgu batetik abiatzen gara, kontzientzia kritikoa, enpatia eta ekintzarako gaitasuna garatzeko. Irakasleak lagundu eta gidatu egiten du ikasketa prozesuan, eta prozesu horretan denok, ikasleek, irakasleok eta familiarek, ikasi egiten dugu.

- Curriculum alor guztiak Garapenerako Hezkuntzarekin lotutako proiektuen bidez lantzen dira.

- Bizi esperientziak dira. Ahazten zailak diren aldaketa prozesuetan aktiboki parte hartu dugu: "Gaur Haitira joango gara" (mediku boluntarioz jantzi-ta, gure larrialdiko ospitalearekin haraino joan gara).

- **Etenik gabeko prozesua** da, ez dira ekintza puntualak.

- Haurrekin **elkarrizketan** aritu behar dugu, eta ideia horiek sistematikoki jaso behar ditugu.

- Proiektuak argazkien eta azalpenen bidez **dokumentatzen** dira.

- Neska-mutikoek bizipen horiek **koadernoetan** jasota eramaten dituzte etxera, argazkiekin eta testuekin.

EBALUAZIO TRESNA ETA IRIZPIDEAK

Garapenerako Hezkuntza definitzen den unetik, curriculumaren alorrek lantzeko behar diren irizpideak ezartzen dira, eta ondoko ebaluazio tresna hauek diseinatu ditugu:

- **Elkarrizketen erregistroa.** Eskolako koadernoan apuntatuko ditugu neska-mutulen iritzirik, epaiak, eta abar, eta, horrela, abiapuntua jarri ahal izango dugu. Irizrietan, aldaketan garapena

ikusiko dugu, errealitatearekin kritikokoagoak diren iritzirik eta soluzioak bilatzeko interesa duten iritzirik entzungo ditugu.

- **Behaketa.** Prozesua bideratzeko funtsezko tresna da.

- **Argazki kamera.** Oso une esanguratsuak jasotzeko balio izango digu. Argazki sekuentzien behaketak dokumentazioa bera ilustratzeko eta, ondoren, ebaluazioa egiteko balio izango digu.

- **Familien parte-hartzearen erregistroa.** Materialak eta informazioa emateko garaian, kontuan izan dugu familiarek nola kolaboratu duten.

- Proiektu guztiak argazkien, umeen arteko elkarrizketen eta azalpenen bidez **dokumentatuta** daude. Word formatuan egindako koadernotxo batzuk eraman dituzte etxera, argazkiak erantsi dizkiete komiki gisa, eskolara bizi izandakoa laburtu dute. Hau da guraso batzuen lekukotasuna: "... eta egongelako lurrean zabaldu zituen; gero, argazkiak banan-banan hartu, eta esan nahi zuena azaldu zigun... Pozgarria izan zen benetan".

- **Elkarrizketak** familiarekin.

- **Horma irudiak** korridoreetan. Beste haur eta heldu batzuekin partekatzeko modua da. Garrantzitsua da beste haur horiek horma irudiak ikustean esaten dutena aztertzea eta kontuan izatea ere.

- Familien **baliospenak**, idatziz. Urrian eta maiatzean, eskolako batzarri buruzko baliospen idatzia eskatu diegu gurasoei, Garapenerako Hezkuntzan oinarritutako hezkuntza lerroari eta etxera eramanez dokumentazio lanari buruz. Oso baliospen positiboa izan da.

Espero dut proiektu honek edozein ikastetxerentzat nortasun ezaugarriak definitzen lagunduko duela.

"Proiektu honetako protagonistak: Sayeli, Ane, Odei, Ainhoa, Eneko, Daina, Mikel Gorka, Irati, Leire, Iban, Naiara, Iraia, Bidane".

"14 hazi, eta begirada eraldatzailea". ●

ORIO IRUTEN

Herritarrak hezkuntzaz hausnartzen

Hezkuntza Sistema Nazionala herritik eraiki behar dela sinetsita, Orioko Foro Independentistak hezkuntzan oinarrituriko jardunaldiak egin zituen iragan azaroan, nazio bat egituratzeko orduan hezkuntza funtsezko tresna dela irizten baitio foroak. Abiapuntu argi bat izan zuten jardunaldiek: “nolako hezkuntza nahi dugun definitzen hastea”. Horretarako, Orion sekula egin ez zen ariketa praktikoa egin zuten: “Hezkuntzari buruzko hausnarketak eta zalantzak partekatzeko asmotan, bakoitzaren errealitatean oinarrituz baina betiko topikoak gaindituz, hezkuntzaren gaineko ikuspegi berri eta fresko bat” osatu zuten. Abiapuntu horretatik, “herri aske baten moduan pentsatzen hastea” izan zuten helburu.

Hasierako helburu hori guztiz bete zuten azaroan O3TEN.HSN Orioko Iruten jardunaldiekin. Sei hilabete lehenago lanean hasi eta berehala, “herritarren borondatea eta harrera ona” jaso zituz-



Ainara Peña eta Eider Salegi jardunaldien antolatzaileetako batzuk.

ten antolatzaileek, Eider Salegi eta Ainara Peña antolatzaileek nabarmendu dutenez. “Oso borondate oneko jendea topatu genuen berehala, esparru ugaritako jendea oso pozik agertu baitzen hasieratik, eta doan lan egiteko eta beren denbora eskaintzeko prest gerturatu zitzaigun jendea”. Lan horren guztiaren emaitza ere oso positiboa izan da antolatzaileentzat, “aspaldian herrian antolatu den ekitaldi jendetsuenetakoa eta parte-hartzaileenetakoa” izan baita Orioko Iruten.

Curriculum propioa osatzeko edukiak

Jardunaldiek hezkuntzarekin loturiko hainbat gai ukitu zituzten sei egunetan zehar, curriculum propio batean lekua izan behar luketen gaiak guztiak ere. Hasteko, herritik bertatik hasi ziren, Benito Lertxundi abeslari oriotarra

mintzatu baitzen, herrian jendaurrean lehen aldiz partekatu zituelarik *Ez dok Amairurekin* eta geroago ere Euskal Herriaren eta euskal kulturaren inguruan bizitako esperientziak; Euskal Herriaren historiari begirada bat bota zioten jarraian, Nabarraldeko Beñi Agirre-
ren eskutik, baina gaur eguneko gaiak ere ukitu zituzten Bilgune Feministaren eskutik, esate baterako, hezkidetzaren inguruko hitzaldi batekin.



Sei egunetan mahai-inguruentzako tarterik ere izan zen jardunaldietan, EHBE Euskal Herriak Bere Eskolak, Hik Hasik eta Porrotzek Euskal Herriko hezkuntza-sistema aztertu zuten alde batetik, eta Oriora etorririk, beste mahai-inguru batean herriko hezkuntza eragile guztiak batu zituzten lehen aldiz jendaurrean mahai baten inguruan, Orioko Herri Ikastola, Zaragueta Eskola, Haurreskola, Musika Eskola, Txurumuski aisialdi taldea eta Mugabe helduen eskola. Antolatzaileentzat azken ekitaldi hori bereziki garrantzitsua izan zen, “argazki esanguratsua da herriko hezkuntza eragile guztiak elkarrekin azaltzea, eta horrek aurrerantzean etor daitezkeen proiektuen hasiera izan behar luke”.

Herriko Eskola Kontseilua helburu

Jardunaldien ekarpen nagusia herritarrek eurek hezkuntzaren inguruan hausnartu izana da, Foro Independentistaren arabera: “Adibide konkretuen gainean hausnartzuz, jendeari eskema asko aldarazi zizkieten jardunaldiek”, adibidez, Euskal Herriko historiari buruz ematen den heziketari buruz edo heziketa parekideari buruz. Izan ere, hezkuntzaren inguruko hausnarketak errealki planteatu zizkieten herritarrei, bai hezkuntzarekin harreman zuzena duten ikasle, guraso edo hezitzaileei, baina baita hezkuntzarekin hain harreman estua edo zuzena ez duten bestelako langileei ere. “Hezkuntzan zuzenean ari ez direnak ere inplikatu egin ziren, eta ohartu ziren hau guztien ardura dela, guztioi eragiten digula, eta nazio bat eraiki nahi badugu funtsezko tresna dela hezkuntza”.

Bigarren ekarpena aurrerago gauzatuko da, jardunaldietatik ateratako hausnarketa eta ondorioei forma emateko garaia baitute orain oriotarrek. Al-



Jardunaldietan parte hartu zuten herriko hezkuntza eragileak.

de batetik, jardunaldietan, hitzaldietan nahiz mahai-inguruetan, azaldu diren ideiak eta hausnarketak hainbat euskarritan argitaratzeko asmoa dute. Eta bestetik, hau litzateke Foro Independentistak jardunaldi hauekin erdietsi nahiko lukeen helburu nagusietako bat, Herriko Eskola Kontseilua sortzea dute xede, eta horri loturik, herriko haur guztiak partekatuko duten Orioko curriculum propioa garatzea.

Herriz herri zabaldu dadin

Orio Iruten ekimenak herrian izan duen onespina eta arrakasta ikusirik, bertan garatu duten esperientzia beste herrietara zabaltzea gustatuko litzaieke orain antolatzaileei, eta eurak horretan laguntzeko “erabat prest” daudela diote. “Baina ekimenak herritik sortu behar du, herritik herriarentzat”. Orion, gainera, alderdi politikoaren esku hartzea saihestuz atera dute aurrera ekimena, “siglei ez eta edukiari eman diogu garrantzia”, diote antolatzaileek.

Orion bertan ere, aurrera begira, jardunaldi hauek jarraipena izan dezaten nahiko luke Foro Independentistak, “hausnarketa pedagogikoetan sakontzeko eta hezkuntzari buruzko hausnarketak eta indarrak curriculumean edo proiektuetan jartzeko, eta ez hainbeste diru-laguntzetara, matrikulazioetara edo antzeko gauzetara”. Antolatzaileek argi ikusi dute, “inposatzen dizkiguten gauzetatik harago, nazio eraikuntzan gauza ugari egin daitezkeela hezkuntzatik”. ●

Oharra: artikuluan erabilitako argazkiak “Karkara” Orioko herri aldizkariak utzitakoak dira.



Nerabeak modu probokatzailean janzten al dira? Ez al genuke ezer egin behar hori saihesteko



Lehenik eta behin, hauxe argitu nahi dut: artikulu honetan deskribatzen eta aztertzen dena sexu hezkuntzan daramatzadan urteetan gai horren inguruan ikusi eta aztertu dudaren emaitza da. Beraz, artikuluan ez da agertuko inolako autorerik, eta ezta nire ideiak baieztatzen edo ezeztatzen dituen ikerketa zientifikorik ere, bi arrazoiengatik: alde batetik, gaur jorratuko den gaia oso zehatza delako eta, horren ondorioz, ez dagoelako oso landuta; eta, bestetik, artikulu honen asmoa soilik arroparen eta probokazioaren gaian ezkutuan dauden hainbat faktore argitara ekartzea delako.

Beraz, aipatu bezala, gai hau aztertzen, hausnartzen edota arautzen denean ahazten diren hainbat faktore argitara ekartzea da artikulu honen helburua; hauek, besteak beste: nerabeek



Aitziber ESTONBA

LILIMA TALDEKO SEXU HEZITZAILEA

bizi duten bilakaerako unearen garrantzia, eta helduei (irakasleei zein gurasoei) gai horren inguruan sortzen zaizkigun ideien edota beldurren azterketa.

1. BILAKAERAKO UNEA

Izenburuan argi ikusten denez, nerabeak dira artikulu honen protagonistak. Horregatik, atal honetan gazte horiek pairatzen dituzten aldaketa fisikoak zein psikologikoak deskribatuko ditut, eta aldaketa horiek gaur jorratzen ari naizen gaiarekin duten lotura azalduko dut.

1.1. Aldaketa fisikoak: ume gorputzetik heldu gorputzera

Garai horretan, hazkundea izugarri bizkortzen da, eta gorputzaren itxura aldatu egiten da. Ikuspuntu fisiko eta fisiologikotik, aurreko etapetan baino eraldaketa sakonagoak eta azkarragoak gertatzen dira, fetu garaikoen edo jaiotzaren ondorengo parekoak. Aldaketa fisiko handienak gorputzaren eta

ugaltze-organoen neurrietan eta itxuran gertatzen dira.

Beraz, eta bazkundearen bizkortze hori dela eta, nerabeak, oso epe motzean, ume gorputza izatetik heldu gorputza izatera iristen dira. Horrek ondorio nabarmena du gaur aztertzen ari garen gaiarekin lotuta.

Ondorio hori azaltzeko, ikastetxe baten adibidea jar daiteke. Uda igaro ondoren, irakasle batek bere ikasleen gorputza oso aldatuta ikus dezake; hau da, ekainean titirik gabe agurtutako neskatoak, epe horretan, emakume gorputza hartu du, bularrak hazi egin zaizkio, aldakak formatu, pisuz eta altueraz handitu egin da, eta hilekoa du (beste hainbat aldaketaren artean). Mutilen kasuan ere prozesu hori oso azkarrak da, eta, orokorrean prozesu horretan neskak baino geroago murgildu arren, gizon gorputza garatzen dute haiek ere; bere garaian, sorbaldak zabaltzen zaizkie, bizarra hazten zaie, eta beste hainbat aldaketa bizi dituzte.

Gorputz berri hori izango du, eta, une horretatik aurrera, pertsona heldu baten gorputza dute kanpo aldetik, nahiz eta oraindik heldu izatera iristeko prozesua luzea izan. Horixe da nerabe-zaroan gertatzen den gertakari bitxia, desoreka handia dago diruditenaren eta direnaren artean. Itxurak eragin handia du guregan, eta, horregatik, nerabeari eman dezakeena baino gehiago eskatzeko joera izaten dugu askotan, itxurak egiten digun tranpa horregatik. Argi dago heldu izateko prozesu horretan daudela; ez dira umeak jada, baina oraindik ere bide luzea dute helduok dauzkagun gaitasun asko garatzeko.

Helduontzat ere ez da erraza. Gure aurrean dauden gaztetxoek heldu gorputza garatzen dute, eta askotariko sentimenduak sor ditzakete guregan. Hau da, nahiz eta irakasleok gure tokia zein den jakin badakigun, gazte horiek hainbat sentimendu sor ditzakete guregan: erakarpena, desira... Azken finean, gure begiek eta zentzumenez ez dute heldutasunaz ulertzen; bai, ordea, gure arrazionaltasunak. Arrazionalta-

sun horri esker, sentimendu horiek behar bezala bideratzen ditugu, eta ikasleengandik behar beste urruntzea lortzen dugu.

Sentimendu horiek izatea ez da ezer txarra, sentitzea ez da kontrola galtzearen sinonimo, ezta sentitzen dugun guztia jokabide bihurtzearen sinonimo ere. Esate baterako, harremanetan, normala denez, haserrea eta beste mota batzuetako sentimenduak azaltzen direnean, gure ikasleak edo seme-alabak iraintzeko edo jotzeko ohitura al dugu? Ez! Gu gure ikasle batek erakartzeak ez du esan nahi harekin oheratuko garenik. Sentitzea, bizirik gauden seinale da soilik, eta guk, helduak garen bezala, sentimendu horiek bizi, onartu eta behar bezala bidera ditzakegu (gure bikotekidearekin, gure adineko heldu batekin, bakarrik...).

Hori hobeto ulertzeko, beste gai bat datorkit burura. Bortxaketetan, nesken itxura edo jarrera epaitzen da askotan, bortxatzaileak egindako delitua epaitu beharrean. Delitua egin duenak, segur aski, pertsona horrenganako desira eta erakarpena sentitu ditu, baina bortxatzea baino askoz aukera gehiago ziotuen: pertsonarekin ligatzeko prozesua hastea; edo, ezetza jasoz gero, beste norbait bilatzea desira hori aurrera eramateko; edo desira sortu dion pertsonarengan pentsatuz bere buruari plazera ematea; edo sentimendu hori bizitzea, onartzea eta, ezinezkoa dela

Itxurak eragin handia du guregan, eta, horregatik, nerabeari eman dezakeena baino gehiago eskatzeko joera izaten dugu askotan, itxurak egiten digun tranpa horregatik. Argi dago heldu izateko prozesu horretan daudela; ez dira umeak jada, baina oraindik ere bide luzea dute helduok dauzkagun gaitasun asko garatzeko.



onartu ondoren, bere burua kontrolatzea. Horrelako hamaika aukera gehiago egongo lirakeke.

Gaiarekin jarraituz, arropa probokatzailerak arautzeko, ikastetxeetan erabiltzen diren neurriak itxura gorde nahian eta "eratasuna", "begirunea" eta horrelako balioen diskurtsoan oinarritzen dira, baina, nire ustez, araudi horien atzean, sentitzeko beldur hori egon daiteke. Hau da, helduok inkontzienteki (hori azpimarratu nahi nuke)



Bikote eta sexu aholkularitza

Eguzkitzaldea 16, behea Irun 609606777/618626208 lilimataldea@hotmail.com

Haserrea eta beste mota batzuetako sentimenduak azaltzen direnean, gure ikasleak edo seme-alabak

iraintzeko edo jotzeko ohitura al dugu? Ez! Gu gure ikasle batek erakartze-

ak ez du esan nahi harekin oheratuko garenik. Sentitzea bizirik gauden seinale da soilik.

sentimendu horien aurrean daukagun beldurratik, horrelakoak saihesteko bide azkarra bilatzeko joera dugu. Gure sentimenduei erreparatu beharrean, sentimendu horiek sortu dituenaren aurka jotzeko joera dugu; kasu horretan, arropa “erruduntzat” hartzen dugu, eta hori arautzen dugu.

Zalantzan jarriko nituzke horrelako neurrien bidez lortzen diren emaitzak. Gure sentimenduek ez dute borondaterik, horrelakoak **piztea edo ez piztea** ezin dugu kontrolatu, baina bai, ordea, sentimendu horiek aurrera eramatea. Beraz, minigona batekin edo eskote zabal batekin gure desira piztu daitekeen arren, eragina dute horretan beste hainbat faktorek ere: usainak, begiradak, gorputzaren mugimenduak, hitz egiteko erak... Horiek denak kontrolatzeko araudiak egin behar al genituzke? Ez al da errazago sentimenduzko pertsonak garelako onartzea eta sentimendu horiek lasai bizitzen ikastea?

Horixe izan daiteke aipatutako faktore ezkutatu bat, irakasleak beraiek ez ohartu arren horretaz. Ez dut esan nahi irakasle guztiek edo heldu guztiok gure ikasleengan horrelako sentimenduak izan ditugunik; soilik horrelakoak sor daitezkeela azaldu nahi dut, eta uste dut, horrelakorik sortuz gero, informazio hau baliagarria izan daitekeela, modu osasuntsuan eta lasai bizitzeko.

1.2. Aldaketa psikologikoak

Lehenik eta behin, argitu nahi dut atal honetan ez ditudala nerabeek izaten dituzten aldaketa psikologiko guztiak landuko, soilik gaur jorratzen ari garen gaiarekin lotura izan dezaketena landuko ditudala. Garrantzitsua iruditzen zait, ordea, aldaketa horietan sakondu baino lehen, nerabeek psikologikoki bizi duten unearen deskribapen laburra egitea.

Nerabezaroaren ezaugarri nagusia helduen gizartera iristea eta gizarteratzea da. Psikologiaren ikuspuntutik, hauek dira aztarna funtsezkoenak: haurrak haur izateari uzten dio, hazi egin delako eta helduen ezaugarri fisikoak bereganatu dituelako, eta bere tokia hartu behar du helduen munduan. Hala, helduen antzekoa izan behar du, baina helduei aurre egin beharko die, haien postua hartu ahal izateko. Aldi berean, helduen munduak gaitzetsi egiten du nerabea, oraindik ere heldugabetzat eta esperientzia nahikorik gabekotzat jotzen baitu.

Azpimarratu beharra dago gizarteak garai horretan duen garrantzia, aurreko adinetan izan ez duen garrantzia hartzen baitu. Gizarteak eragin handia du adin guztietan, baina oso desberdina da nerabezaroan duena, lehen norberarengan norberak eragiten baitzuen (horretaz jabetu gabe), eta gizar-tearentzat haurrak ez baitzuen kontzientziarik. Orain, berriz, gizarteak egiten duen presioaz jabetzen da, eta aktoretzat ikusten du bere burua: alde batetik, gizarte batean dagoela jabetzen hasten da, eta gainera, nola jokatu behar duen ulertzen du; beste alde batetik, gizarte horretan zergatik dagoen ulertu nahi du, eta berak hautatu ez duen jokamolde bat onartu behar ote duen galdetzen dio bere buruari.

Identitatearen bilaketa

Arestian aipatu denez, nerabeak, gizartean bere tokia aurkitzeko, heldu identitate berria bilatu beharra du heldua izateko bide horretan, gorputz berrira egokitzeaz gain; eta identitate hori gurasoengandik edo gertuko eredu-

gandik desberdina izango da.

Horregatik, nolabait helduaren “aurka” jarri beharra izaten du; ez pertsonaren aurka, helduak adierazten duenaren aurka baizik. Horrela, gazteek senitartekoak eta irakasleak baztertzeko joera ere izaten dute, euren heldu ereduak antigoalekotzat eta zahartzat jotzen baitituzte, eta haien jokaerak eta diskurtsoak baztertu egiten dituzte. Haurtzaroan gurasoak idealizatuta edukitzea haurrentzat onuragarria den modu berean, nerabeentzat gurasoen aurka azaltzea edo haiengandik urruntzea ere osasungarria da, haien identitatearen bilaketa prozesuaren parte delako hori. Hori kontuan hartuta, guraso edo irakasleei kritika suminagoa egiten die, beharrezkoa den urruntze hori lortu ahal izateko.

Baina nola gertatzen da urruntze eta aurkaritza hori? Nerabeak jokaera bereziak izan ditzake, jokaera “probokatzailak” dei daitezkeenak. Jokaera bereziak, ez soilik janzteko moduan, baita jokatzeko moduan ere: ozen hitz egitea, musika oso ozen entzutea, etengabe barre egitea, helduekin modu erasokorrean aritzea...

Beraz, arropa probokatzailak edo helduentzat desagokiak direnak janztea identitate bilatze horri erantzuna emateko modu bat izan daiteke, eta helduari identitate bila dabilatzala adierazteko tresna bilaka daiteke.

Horrez gain, nerabeek beren jokaerak helduengan erreakzio bereziren bat duela ikusten badute, errepikatzena joko dute. Horregatik, berriro ere zalantzan jarriko nuke arropa probokatzailak arautzearen eraginkortasuna, zenbat eta debeku handiagoak ezarri, orduan eta gogo handiagoa sortzen baita debekatu dena egiteko.

Adiskidetasuna eta taldearen garrantzia nerabezaroan

Helduen munduan egiten den gizarteratze anbiguo hori gauzatu ahal izateko, gazteak aurre egin behar dio mundu horri, senitartekoetatik urrundu egin behar du, eta gurasoekiko loturak aldatu egin behar ditu. Baina oso

zaila litzateke hori egitea beste norbaitengan laguntzarik topatu gabe. Horregatik, lagunak funtsezkoak izaten dira, eta taldeak osatzeko joera agertzen dute nerabeek. Adin berekoekin bat egiteak, beraz, bi funtzio betetzen ditu: alde batetik, senitartekoengandik aldentzen laguntzen dio; eta, bestetik, gizar-tean arazo eta posizio berdintsuak dituzten pertsonekin esperientziak truka ditzake.

Adin berekoentalde horren eragina oso handia izan daiteke, eta ez du zertan onuragarria izan. Gurasoekiko distantzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago behar du adiskideen laguntza. Oraindik osatu gabeko identitatea duenez, nerabeak “talde identitatea” sortzen du, besteekin batera partekatzen du, eta pertsonaia publikoengan, musikako edo ikuskizunetako irudietan, “heroiengan”, identifikatzen du bere burua.

Horrez gain, nerabeak arreta handia jartzen dio besteek duten iritzari, eta garrantzi handia du berari buruz pentsatzen edo esaten dutenak. Guztien jomugan dagoela iruditzen zaio (izaera sozialeko egozentrismoa).

Bi arrazoi hauek direla medio, nerabeek beste guztiak bezala janzteko eta modak agintzen duenari muturreraino jarraitzeko joera izaten dute. Gure kulturaren gorputzaren irudiari eta irudi erakargarria izateari ematen zaion gehiegizko garrantzia kontutan hartua, oraingo gazteek itxurari garrantzi handia ematen diote, taldean onartua sentitzeko.

Horrez gain, modak aldatuz doaz, eta, oraingo modan, lehen ez zeuden hainbat ezaugarri daude, eskoletan gatazkatsuak izaten ari direnak: tanga eta galtzontziloak erakustea, gerri baxuko galtzak, takoiak erabilera, galtza motzak edo minigonak janztea, makilatzea... Horrelako janzkien erabilera oso arrunta da gazteentzat eta nerabeentzat, helduontzat egunero gure ikasleen tangak edo galtzontziloak ikustea arraroa izan daitekeen arren. Haien modu naturalean ikusten dute edonork makilatzea edo ikaskideen tanga eta

galtzontziloen koloreak jakitea. Hainbat modatan bezala, hasieran arraroa zena, gero, arrunt ikusten da. Adibidez, duela hiru urte ezinezkoa zen galtzak bota barruan sartuta eramatea, eta horrela zihoanak atentzioa ematen zigun; baina jende guztia horrela doa orain.

Amodiozko lehen harremanak

Nerabezaroan gertatzen dira amodiozko lehen harremanak. Gazte horien arteko harremanetan, oso nabariak dira aldaketak, desira eta erakarpentzen sentimenduak agertzen hasten dira, eta oso biziak izaten dira gainera.

Ez dirudi horren garrantzitsuak direnik aldaketa horiek, baina lantzen ari garen gaiarekin oso lotuta daude. Arropak arautzearen aldeko diskurtsoetan, eskolara etortzeko arropa eta jaieguneko arropa bereiztea eskatzen da. Eskolara ikastera etortzen direla, alegia, eta ez ligatzera.

Pertsonok (ez nerabeek soilik) egunero ordu asko pasatzen ditugu lantokietan. Harreman estuak izaten dira askotan lankideen artean, eta horien artean amodiozko harremanak ere sor daitezke. Gazteentzat, guretzat bezala, eskola gizarteratzeko beste toki bat da, eta denbora luzea pasatzen dute gelakideekin. Eskolan sor daitezke haien lehenbiziko harremanak. Norbait gustuko dugunean, haren aurrean gure itxurari politena erakusteko joera dugu, hark guri begiratzea baitugu helburu.

Beraz, arropa “probokatzaileen”

Arropa probokatzaileak edo helduentzat desegokiak direnak janztea identitate bilatzeari erantzuna emateko modu bat izan daiteke, eta helduari identitate bila dabiltzala adierazteko tresna bilaka daiteke. Horrez gain, nerabeek beren jokaerak helduegan erreakzio bereziren bat duela ikusten badute, errepikatzen joko dute.



diskurtsoa aztertzerakoan, uste dut mezezi duela arestian aztertu diren faktoreak kontuan hartzea. Horrela, nerabeek izan ditzaketen hainbat jokaera uler ditzakegu, eta nerabeen eta helduen arteko elkarbizitarrako aurrerapausoak eman daitezke. Hurrengo atalean landuko da gai hau.

2. HELDUOK GURE TOKIA BILATZEN

Norbaitek esan dezake artikuluan zehar asko sakondu dela nerabeen prozesuan, baina gai honetan garrantzi



Nerabearekin harremana edukitzeko, derrigorrezkoa da lotura afektiboa lortzea. Helduak uneoro jakin

beharko du, harreman horretan, heldua dela gazteari lagundu behar diona,

emozionalki hark lagundu behar diola, eta ez alderantziz.



handia duen beste eragile bat ahaztu dela. Alegia, badirudi helduok ahalegin berezia egin behar dugula gazteek bizi dutena ulertzeko, baina helduok une horretan eta harreman aldaketa horren aurrean ditugun zalantzak, beldurrak eta kezkek ahaztu egin direla.

Argi dago bidea ez dela samurra nerabearen ondoan dauden helduentzat, irakasleentzat, hezitzaileentzat zein gurasoentzat. Bai gurasoek eta baita irakasleek ere diote, askotan, galduta sentitzen direla.

Galera horren aurrean, bi bide har ditzakegu: bata, nerabeek bizi duten unea ulertu gabe, haien aurka joatea eta egiten duten guztia kontrolatzea, debekatzea, arautzea...; edota bestea, nire ustez aberasgarriena dena, gure ikasleek, seme-alabek bizi duten unean informazioa biltzea, eta gure aldetik egin dezakegun guztia egitea, denek nerabearo prozesu hori ahalik eta modu osasuntsuenean bizi dezaten.

Hona hemen baliagarriak izan daitezkeen hainbat ohar, bigarren aukera hori hartzen duten profesional edo gurasoentzat:

1. Lehen esan dudana bezala, nerabeek bizi duten bilakaerako unea ulertzea garrantzitsua da, haiekin dugun jokaera zorrotzegia izan ez dadin eta guztion artean elkarbizitzarako bideak uz-

tar ditzagun.

Arropa probokatzailerak janztea adin horretan izaten dituzten beste hainbat jokaeraren antzera har daiteke; adibidez, helduen jokaerak kritikatzeko, edo eskolan proposatzen zaizkien gauzak zalantzan jartzea... Horren guztiaren aurrean, irakasleak heldu modura trata ditzake ikasleak, eta gaiari hel diezaioke, debatea pizteko eta helduen eta gazteen iritzia mahaian jartzeko. Zergatik ez da arroparen gaiarekin ere gauza bera egiten? Adibidez, irakasleek, gurasoen eta ikasleen arteko debata sor daiteke, eta, ondoren, beharrezkoa balitz, denen artean araudi bat lor daiteke.

2. Bestalde, nire ustez, nerabeekin lan egiten duen profesionalak, haren bilakaerako unea ulertzeko gai izateaz gain, argi izan behar ditu bi gauza hauek: nerabeak hurbil sentitu behar du, baina, aldi berean, harengandik urruntzen jakin behar du. Azter dezagun kontu hau.

Nerabearekin harremana edukitzeko, derrigorrezkoa da lotura afektiboa lortzea. Helduak uneoro jakin beharko du, harreman horretan, heldua dela gazteari lagundu behar diona, emozionalki hark lagundu behar diola, eta ez alderantziz. Helduok, orokorrean zaintzaile edo hezitzaile garen profesionalok, besteak ongi zaintzeko eta hezteko gure espazioak bilatu behar ditugu, eta guk ere zainduta gaudela eta behar emozionalak aseta ditugula sentitu behar dugu. Espazioak asko izan daitezke: bikotea, lagunak, familia, laguntza psikologikoa edo gu bezalako profesionalen arteko elkarrizketa eta topaketak...

Era berean, ezinbestekoa da nerabeekin behar besteko distantziarekin jokatzeko; helduak oso argi izan behar du harremanean bere tokia zein den. Hauxe adierazi nahi dut: gu ez gara nerabeen lagunak, gu haien irakasleak, hezitzaileak edota gurasoak gara.

Beraz, behar-beharrezkoa da distantzia hori. Alde batetik, probokazio horiei kasurik ez egiteko, norberak bere autoestimua ongi kokatua izan

beharko du. Gazte batek helduaren kontrako diskurtsoa duenean, edo hark proposatzen duena baztertzen duenean, haren aurka ez doala ulertu behar du, soilik proposatu duena baztertu egiten duela, heldu batengandik datorrelako. Horrek ez du esan nahi nerabeak errespetua galdu behar duenik.


Bestetik, beharrezkoa dute distantzia hori, gure kontra jartzea haien prozesuaren parte delako. Dena den, itxurazko aurkaritza eta independentzia horren atzean, nerabeek senitartekoen eta irakasleen laguntza eta ulermena behar dute ezinbestean.

3. Aldaketa fisikoak aztertzerakoan aipatu diren sentimenduak onartzea eta lasai bizitzea proposatzen dut. Gazteenganako sentimendu bat, edozein motatakoa, izaten badugu (gorrotoa, desira, erakarpena, pena...), normala dela onartu behar genuke, eta behar bezala eta behar den tokian bideratzen jakin behar genuke. Horretarako, garrantzitsua da lehen aipatu diren espazioak sustatzea, irakasleek sentitzen dutenaz lasai hitz egin dezaten.

4. Askotan, helduok nerabeekin dugun jarreraren eragina izan dezake hainbat faktore inkontzientek. Horieta bat, ari garekin gairekin lotura zuzena duena, gure nerabearoan izan ditugun bizipenak dira. Hau da, ni gaztetan konplexudun neska izan banintzen eta mutilengana hurbiltzeko gai ez banintzen izan; orain, lirainak direnekin eta mutilekin, arrakasta duten ikasleekin, jarrera berezia izan dezaket, nolabait nire adinean gainditu ez nuen gauza bat nire heldu bizitzan eta gazteekin lanean ari naizela ager baitaiteke. Berriro ere, hori jokaera inkontzientea dela azpimarratu nahiko nuke, eta, askotan, pertsonekin ditugun harremanetan eragina duela, eta soilik barrurantz begiratuta aurki daitekeela.

Helduontzat haien bidez gauza horiek hautematea oso opari polita dela iruditzen zait, eta hori dena modu kontzientean bizitzeak aukera ezin hobea eskaintzen digu gure burua ezagutzeko eta pertsona gisa hazteko eta aberas-teko. ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

EHBEk sistema herritarra, publikoa, parekidea eta eredu propioa duena proposatu du



EHBE Euskal Herriak Bere Eskolak urtebeteko hausnarketa prozesua burutu du, eta ondorioak jendaurrean aurkeztu ditu. Ondorio horien artean, batetik, nabarmentzen da herrieari garrantzia handiagoa emango dien sistema bultzatuko duela, publikoa, parekidea, nazionala eta eredu propioa izan-

go duena. Bigarrenik, euskalduna izango den sistema bultzatuko du, hau da, euskalduna hizkuntzaz baina baita edukiz ere, eta euskaldunduko duena eta oinarrian euskal nortasuna izango duena lortzea da aurrera begira EHBEk duen xedea. Helburu horietara iristeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu

du hezkuntzako plataformak.

Gaur egun hezkuntzaren egoerari buruzko diagnosi bat eginaz, EHBEk dio "Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak" urratu egiten dituela hezkuntza sistemak, eta horren adibide gisa aurkeztu du testuliburuaren arazoa, non "euskal nortasuna errotik ezabatua izan den". Gaurko sistemak, eta bereziki Nafarroakoak, "ikasleak ez euskalduntzeaz gain, hirueletasuna eta TIL ereduaren inposatu" izana salatu dute. EHBEk proposatzen duen sistema bestelakoa da parekidetasunaren ikuspegitik ere gaur egungo egoera: "herritarren parte-hartzea ez du ahalbidetzen eta patriarkatuan errotua dago".

Jendaurreko aurkezpenaren aurretik bilera egin zuten eragileek Bilbon, eta bertan, EHBEk, Hik Hasik, Bilgune Feministak eta Kontseiluak u- ne honetan garatzen ari diren proiektuen aurkezpena egin zuten. Azkenik, hezkuntza sistema propioaren alde lan egiteko prest dauden banako zein eragile oro plataformara gerturatzeko deia egin zuten EHBEk.

ZUTUNDU SURF UDALEKUA
"Olatu artean dantzan"

Zutundu Surf Eskolaren eskutik astebeteko euskarazko surf egonaldia. Surf eskolak (material guztia barne), honekin lotutako jarduerak (skate, stretching, oreka ariketak, material tailerra...) eta udaldiko jarduerak uztartuz (txangoak, kirolak...)

Non: Igerain aterpetxea (Zarautz)

Noiz - Nor:

1. Txanda: ekainaren 26tik uztailaren 2ra	10-12 urte
2. Txanda: uztailaren 3tik 9ra	15-18 urte
3. Txanda: uztailaren 10etik 16ra	15-18 urte
4. Txanda: uztailaren 17tik 23ra	12-14 urte
5. Txanda: uztailaren 24tik 30era	12-14 urte
6. Txanda: uztailaren 31tik abuztuaren 6ra	10-14 urte

* Txanda bakoitzean 30 partaideko muga

Izen ematea: epea martxoaren 7an irekiko da eta maiatzaren 5ean itxi

Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira

Prezioa: Ikasle Federatuentzat 400€ Gainerakoentzat 435€

GAZTE EGONALDIAK
ESPEJOKO aterpetxean

ENTZUN GAITZATELA! www.gazte-egonaldiak.net

- Euskal Herri guztiko gazteen bilgune izango da Espejo uda honetan. Bertan laburmetraiak egiten ikasiko dugu, graffitekin gozatu, Gasteizko Hala Bedi irrartian parte hartu... eta horrez gain, musikariak izango ditugu gonbidatu.
- NON:** Espejon
- NORENTZAT:** 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat
- NOIZ:**
 1. txanda: uztailaren 2tik uztailaren 9ra. (12-14 urte)
 2. txanda: uztailaren 9tik uztailaren 16ra. (12-14 urte)
 3. txanda: uztailaren 16tik uztailaren 23ra. (15-18 urte)
 4. txanda: uztailaren 23tik uztailaren 30era. (15-18 urte)
- PREZIOA:** Ikasle federatuentzat: 250€
Gainerakoentzat: 285€
- IZEN EMATEA:** epea martxoaren 7an irekiko da eta maiatzaren 5ean itxi

*Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira

Ezagutza elkarlanean eraikitzeko” jardunaldi pedagogikoak, Gasteizen

Martxoaren 15, 16 eta 17an XVIII. Jardunaldi Pedagogiako egingo dituzte Gasteizko Europa Jauregian, Ikastolen Elkartek antolatutako. Ezagutza elkarlanean eraikiz izenburupean partekatutako ezagutza sortzeko eta kudeatzeko prozesuez eta estrategiez ariko dira; eta baita ezagutzaren gizarte ezaugarriek hezkuntzan nola eragiten duten eta zer baliabide eskaintzen dizkieten irakasle eta ikastetxeei sare nahiz komunitate gisa elkarrekin aktiboki eagozte berriak sortzeko. Euskal Herriko hainbat ikastolako proiektuak ezagutaraziko dituzte, Kanboko kolegioa edo Lizarrako interdiziplinitate esperientzia. Baina kanpoko adituen hitzaldiak ere izango dira, eta hitzaldi eta mintegiez gain tailerrak egingo ditute. Izen emateko azken eguna martxoaren 14a da eta informazio osoa www.ikastola.net-en aurki liteke.



17. Korrikak badu unitate didaktikoa



AEK-Korrikak eta Ikastolen Elkartek euskararen aldeko lasterketari buruzko unitate-didaktikoa egin dute, Haur Hezkuntzatik hasi eta 18 urtera bitarteko ikasle guztiei zuzendua. Ikastetxeetan Korrikaren mezua zabaltzeko helburuarekin, 10 egunerako prestatutako materiala eskaintzen du. Irakasleei Korrika txikiak antolatzen eta prestatzen laguntzeko ere baliagarria da, eta egiten duten lan handia eskertzeko modu bat ere bada. Korrikaren webgunean (www.korrika.org) deskarga daiteke materiala.

Iparraldeko ikastolen “panorama grisa” argitzen laguntzeko Herri Urratsen kanpaina martxan da

Bi hilabete falta dira Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jairako, maiatzaren 8an egingo baita aurten, baina kanpaina dagoeneko martxan da, ahalik eta euskaltzale gehien laguntza eskuratu ahal izateko. Seaskaren panorama “aski grisa” dela adierazi du Paxkal Indo Seaskako lehendakariak, bereziki iazko eguraldi txarraren ondorioz ez baitzuten jaso

espero zuten diru-kopurua. Horregatik, egunean berean zer gerta litekeen ezin jakinda, aurretik hasi dira dirua bildutako dirua Kanboko Xalbador Kolegioa berritzeko baliatuko dute. Dagoeneko maiatzaren 8ko jairako Berri Txarrak-ek Sustrai Colinaren letrarekin egin duen kantua aurkeztu dute, *Laku bat mundurako* leloa ardatz duena.





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> **PISA neurketako emaitzak hiru urtetik behin egiten dira publiko. Zer iritzi duzu neurketa mota horren gainean?**

> **PISA ere merkatuari begira**

Lehen ez zen neurketa hori egiten eta orain, bai. Zerk eragin du eskolako ikasgai batzuk neurtzera? Ziur nago merkatuak eragin duela. Munduko ekonomia merkatuari begira jarria dago eta hezkuntza, komunikabideak bezala horren zerbitzura jarriak daude. Horregatik, ni oso mesfidatia naiz era horretako neurketekin. *Mikel Legarreta*

> **PISAk hobetzeko balio behar du**

Ez dakit merkatuari edo zeini erantzungo dion, baina hobetzeko balio badu, ongi etorria. Askotan, definizio eta hitz orokorren atzean ezkututzen dugu dena aurrera ez egiteko. Niri ez zait asko axola noren interesa den, ondorioak interesatzen zaizkit, eta gizartearen onerako den heinean babestuko dut.

Izan ere, eskola bera noiz zabaldu zen jende guztiarentzat? Noiz hasi zen orokortzen? Merkatuari, enpresei zehazki, langile prestatuak behar izan zituenean interesatu zitzaion eskolak orokortzea. Horrela, emakumeek lanera joateko aukera izango zuten eta umeak kaletik atera eta ikasten jartzean, lantegietan behar zituztenearako prestatuagoak egongo ziren. Hori egitea kaltegarri izan al da guretzat? Ala merkatuaren interesarengatik alfabetatuak eta prestatuagoak izateak onurak ekarri dizkigu? Hausnartzekoa dela iruditzen zait. *Andoni E.*

> **Ona denontzako baldin bada**

Kanpoko ebaluazioa edo neurketa egitea ona dela iruditzen zait, neurketa objektiboa eta denontzako eginga baldin bada behinik behin. Zer arrisku du une zehatz batean materia batzuetan ikasleak zer mailatan dauden jakiteak? Gero eta datu objektibo gehiago izatea hobea dela iruditzen zait, helburua egiten dugun lana hobetzea baldin bada. Hobetzeak ez badigu axola, ongi gaude ez kanpoko eta ez barruko neurketekin. Gora festa! *Julen M.*

> **Ona da kanpoko ebaluazioa**

Edozein lanetan ona da kanpoko neurketak egotea. Normalean, gure lanean murgiltzen gara eta egunerokotasunak eramaten gaitu. Horregatik, nire ustez, ona da kanpoko neurketak egotea. Hobea litzateke bertan egitea, horretarako tresna egokiak izatea eta guk geuk egitea, baina ez da hala gertatzen. Bestalde, oro har, ikasleak soilik neurtzen dira. Ona litzateke ikastetxe osoa, proiektua duen neurrian, horrek zer ondorio dituen neurtzea. Ikasleena ongi dago, baina eskola osoaren ibilbidea zein den ezagutzea eta hobetzeko balio izatea egokia litzateke. *Miren P.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> **Berdina mantentzen da.**

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Edukalboan
ALBOAN

Aldizkariaren azken zenbakiak pertsona guztiok dugun hezkuntza-eskubideari buruz hausnartzen du, eta bereziki emakumeen egoera azpimarratzen du, emakumeek hezkuntza-sistemetan nozitzen duten diskriminazioa azaleratuz. Aldizkariko gai zentralak Hezkuntzaren Aldeko Munduko kanpainak ematen dituen datuak esplikatzen ditu, munduko 760 milioi pertsona analfabeto baitira gaur egun. •



Bat
SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA

Hizkuntza normalkuntza eta glotopolitika aldizkariaren 78. zenbakiak III. Hausnartu sarien irabazleak aurkezten ditu. Lehen saria Arrasateko gazteek musika eta euskararen artean zer nolako loturak egiten dituzten aztertzen duen lanak jaso du, Luis Azpiazu irakasleak eginiko lanak. Bigarren lana Galder Unzalurena da; hirugarrena, Patxi Juaristi Larrinagarena eta laugarrena, Roberto Manjonena. •



Rita erraldoia
Mikel Valverde
ELKAR

Ritak altuago izan nahi du. Gelako txikiena da eta kokoteraino dago. Gainera, aldizkariaren batean irakurri du emakume altuek bakarrik dutela arrakasta. Gurasoei eskatuko die laguntza, baina ez kezkatzeko esaten diote beti, guztiak maite dutela den bezalakoa. Egun batean, ordea, azokan edabe magiko bat aurkituko du. Ausartuko al da edatera? •



Hipo-krisia
Unai Oñederra
EZTABAIDA

Gaur egungo egoerari eta sistemari buruzko fabula bat idatzi du Unai Oñederra donostiarrak. Animaliak dira nobelako protagonistak eta haien pasadizoan bidez gaurko gizarte-ereduari kritika zorrotza egiten dio. Hipoa urmaelean bizi da, baina lekuz mugitu behar du, eta leku-aldatze hori saihesteko urmetagailua asmatuko du. •



Buru ta zioak
Fito Rodriguez
UTRIUSQUE VASCONIAE

Nola idatzi eta irakurri behar den literatura, ideia horri buruzko gogoeta egin du Fito Rodriguezek *Buru ta zioak* saiakera-liburuan. Irakurtzeko zaletasunari buruzko gogoetak, baieztapenak eta kontraesanak, aforismoen bidez taxutu ditu eta bederatzita ataletan antolatatu ditu. Lanak hiru ardatz ditu: hezkuntza, filosofia eta bertsolaritza. •



7 kolore
Jon Arretxe
EREIN

Duela hainbat urtetako proiektuari heldu dio berriro Jon Arretxek, eta *7 kolore* liburu arrakastatsua berriro argitaratu du, baina edizio guztiz berrituan, musikaz lagundua eta Cristina Fernandezek irudi berriekin. Musika Francisco Ibañezek sortu du, eta lan berria jendaurrean aurkezten ere ari dira hiru egileak. •

... nora joango gara?

Bilboko euskal museoa

Jatorrira bidiaia

Bilboko Alde Zaharrea kokatua dagoen eraikinak berak berehala bereganatzen du bisitariaren arreta. Estilo barroko-ko eraikina benetan ederra da, XVIII. mendean eraikia, 1921ean ireki zituen atea Bizkaiko Arkeologia eta Euskal Herriko Etnografia Museo bezala, eta 1962an Kultura ondasun izendatu zuten. Bertara sartu, eta jatorrira bidiaia bat hasiko du bisitariak.

Gure gizartearen historia eta kulturaren bilakaera bertatik bertara ikusteko aukera ematen dio museoak bisitariari. Nola bizi ziren garai bateko arrantzaleak? Nola bizi ziren Ameriketara joan ziren artzainak? Eta, zerekin jolasen ziren? Nola janzten ziren? Ze bilakaera izan dute euskal herriek? Galdera horien guztien erantzunak ematen ditu Euskal Museoak, antzinako materialekin eta irudiekin.

Lehen solairuan artzaintza-kultura, itsasoa, zeramika, armak eta ehunei eskainiriko erakusketa iraunkorrak daude. Areto ilunean sartu eta haurrei berehala deitzen die arreta tamaina errealeko egurrezko ontzi batek, eta urrun ikusten dute garai hartako euskal herriarren errealitatea eurenarekin alderatuz. Duela pare bat mendetako ontzien erreplikak, arrantzurako aingura, kai-



nabera, saski edo bestelako tresna zaharrak, arropak edota arrantza eta kristau fedea lotzen dituzten irudi ugari ikus daitezke aretoan, eta baita herri arrantzale baten erreplika ederra ere. Aurrerago, bestalde, artzaintzari eskainitako gunean, Ameriketara joandako artzainek jolaserako erabiltzen zituzten kartak ikustean konturatzen dira haurrak: "gauza batzuetan ez gara batere aldatu!".



Euskal Museoan egiten den urrats bakoitza, euskal historian egiten den urratsa da, kulturaren bilakaera ezagutzeko. Bilakaera hori munduari begira dago batetik, baina era berean, Euskal Herriko izaera propioa agerikoa da. Ehungintzari eskainiriko aretoan oso nabarmen ikusten da, hariak, ehunak eta oihalak sortzeko tresneriari begirata, aurreko mendeetako euskal herriarrek atzerriko tresneriaren antzekoa erabiltzen zutela, baina euren ohituren eta beharren arabera jantziak egiten zituzten, Euskal Herriko ezaugarri batzuei jarraituz.

Artzaintzatik eta arrantzatik, merkataritzara

Bigarren solairuan loza eta porzellan ederrak daude, Euskal Herriko lantegietan eguneroko zereginetarako



XVIII-XX. mendeen artean erabiltzen zituzten loza eta porzellanazko objektuak ikus daitezke.

Hirugarren solairuan, berriz, Bilboko kontsulatuaren erakustaldia eta Bizkaiko maketa daude. Oso tamaina handikoa da Bizkaiko maketa, eta bisitariak txori begiz bezala ikus ditzake goitik Bilbo eta inguruko herriak.

Bilboko kontsulatuaren bulegoak zirenetan sartzearekin batera, historia lezio bat ikasiko du bisitariak. XIV. mendea arte arrantzale eta nekazari izandako herritar asko merkataria, armadore eta nabigatzaile bihurtu ziren XIV. mendean. Bilboko merkataritza-jarduera oparoena XVI. mendean izan zen, museoan ikus daitekeenez, eta herrialdearen merkataritza eta nabigazio-lanetan foruek zein nolako garrantzia zeukaten ere bistarazten du, besteak beste. Hiru mende inguru iraun zuen Bilboko Kontsulatuak, eta Espainiatik igaro gabe, bere ordezkaritza zeukan Bruselako juntan.

Eulalia Abaituaren zuri-beltzeko erretratuak

Behoko solairuan aldi baterako erakusketan jartzen ditu museoak, eta maiatzaren 29a arte Eulalia Abaitua argazkilaria eskainirikoa egongo da ikusgai. Eulalia Abaitua Bilbon jaio zen 1853an, familia burges batean. Liverpooleko gaztelu batean bizi zelarik deskubritu zuen argazkilaritza, eta sendieak eta herritar arruntak erretratatzeko hasi zen, xafla estereoskopikoak erabiliz. 1941ean zendu zen Bilbon. Zuri-beltzeko bere erretratuekin areto bat bete du Bilboko Euskal Museoa. ●

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

Unamuno plaza, 4
48006 BILBO
Tel.: 944 155 423
Fax: 944 790 608
muscoa@euskal-muscoa.org
www.euskal-muscoa.org



SARRERA

Banakakoa: 3 euro.
Ikasleak eta taldeak: 1,5 euro.
Eskola-ikasleak eta 10 lagunetik gorako taldeak: hitzartutako bisitaldiak, besterik ez.
10 urtetik beherakoak eta erretiratuak: dohainik.
Museoaren eguna: osteguna

ORDUTEGIA

- -Astartetik larunbatera,
- 11:00etatik 17:00etara
- -Igandeetan, 11:00etatik
- 14:00etara
- -Astelehen eta jaiegune-
- tan, itxita.

MUSEO GEHIAGO BILBON

Bilboko Arte Eder museoak

XII. Mendetik gaur egunera arteko obrak biltzen ditu museoak, Grekoa, Murillo, Zurbaran, Goya, Zuloaga, Arteta, Txillida, Oteiza... Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleei zuzenduriko proiektuak ditu museoak. www.museobilbao.com

Bilboko Itsasadarra museoak

Bilboko itsasadarrean eta horretatik bizi izan diren gizon eta emakumeen historia, kultura eta nortasuna babestea eta hedatzea da museoaren egitekoa, eta haurrei zuzenduriko programa bereziak dituzte. www.museo-maritimobilbao.org

Guggenheim museoak

Arte moderno eta garaikidea jasotzen eta erakusten du bilduma iraunkorreko eta aldi bateko erakusketekin Frank O. Gehryren eraikinean. Arte-lanak jolasen bidez aztertzeko heziketa-programak dituzte haurrentzat. www.guggenheimbilbao.es



atzeko atetik



Xabi PAYA

Berstolaria eta irakaslea

Amak irakasle dira berez, hala xedatuta dute kontratuz. Gureari, ordea, ofizioak ere hala ziotson: “profesora mercantil”. Hark irakatsi dizkit bizirik irautetik Stanislavskiren metodora bitartean egon daitezkeen gauza miragarri asko.

Kontxi zuen izena Fredi eta bion umezainak. Mary Poppins euskaldunzahar haren ahotik ikasi genituen mila euskal hitz eta kanta, amak euskara entzunarazi nahi baitzigun ikastolatik kanpo ere. Maitasunez gogoratzen dut auskalo ze urte gutxiko Xabi kalekume haren amesgaiztoetako bat: “Hegoak ebaki ala aske utzi? Ez, ez... erosi kaio-la!”

San Nikolas ikastolako patio gorriaren bestaldeko eskolaurreko eraikinararen atean ezagutu nuen nire lehen andereñoa: **andereño Belen**. Harekin ikasi nituen oraindik gaizki kantatzen ditudan “Paris y la torre, artista bat naiz ni” edo “Andromeda, po, po, po, po, po,

Esker ematea

po, po, po...”. Geroago, **andereño Maria Luisarekin** atera omen nuen hiru neba-arreben bigarrena izatearen desatsegina: ertaina gustatu ez eta “handia eta txikia” nintzela esaten omen nion, hezkuntzaren lehen mailako logikan doktore. Harekin ere gertatu zitzaidan beste pasadizo hau: “Xabi, aita dator itsasotik; ez al zara pozten?” “Etorzen den bakoitzean poztu behar badut, joaten den bakoitzean triste jarri beharko naiz...”.

Uste dut **andereño Karmele**rekin ikasi nuela zer zen ergatiboa, “joan joaten” edo “hasten naiz” bezalako esaldiak okerrak zirela eta noten koaderno osoa bikainez bete zitekeela. Haiek garaiak haiek! Halere, “bikainitisa” **andereño Anjelic** kendu zidan, seigarren mailako gaztelaniazko klase batean, penkoe birjinitatea galarazi baitzidan. Inork ez dio lehen aldia erraza denik, baina hortik aurrera errepikatzeak ez du hainbesteko minik ematen. Minik gabe, **maisú Jonekin** matematika jolas bat zela ikasi nuen. Eta nola ahaztu **andereño Begoren** historiako klaseak eta Orreagako gudaren maketa!

Aintzanerekin (akabo maisu/andereñoak BBBtik aurrera) literaturaz maitemindu nintzen; **Itziar**rekin zentzua aurkitu nien selektibitateaz geroztik

abandonatutako matrize, zenbaki nepertar eta limite haiei guztiei. **Jabirekin** milioiak irabazi nituen, ekonomiako klasean jostagai genuen burtsaren jarraipena egiteko ariketa hartan. Niretzat gordetzen ditut horien guztien eta aipatu ez ditudanen beste mila pasadizo, eta ezizen.

Eta gaur egun ni naiz andereño jaun horietako bat. Urteak daramatzat eskolak ematen, bertso-eskolan, han-hemengo ikastetxeetan, Mondragon Unibertsitatean eta orain Birminghamgo Unibertsitatean. Oso leku ezberdinak izan arren, denetan gogoratu izan ditut hiru ideia gelara sartu aurretik (esaldiok ez dira nireak):

1) “Xabi, hemendik hamar urtera horbarruko inork ez du gogoratuko zer irakatsi zenien, baina ondo egiten baduzu, baten batek ez du ahaztuko eskolatan sentiarazi zeniona.”

2) “Gizakiak irakurtzen duenaren %10, entzuten duenaren %20, ikusten duenaren %30 eta bizi duenaren %80 gogoratzen du. Saiatu bizitzeko moduko eskolak egiten”.

3) Hiru motatako irakasleak daude: a) informatzaileak, b) entretenitzaileak eta c) informatzaile-entretentzaileak. Erantzun zuzena c) da”.

Eskerrik asko denei!



“Edozer gairekin, materialarekin jardun daiteke hurrekin, ez beti erosten diren materialarekin”.

Imanol Urbieta

XVIII. Jardunaldi Pedagogikoak

**elkarrekin eraiki,
elkarrekin lanean,
elkarri irakatsi, elkarrekin ikasi.**

2011ko martxoaren 15, 16 eta 17an
Gasteizko Europa Jauregian



Kataluniara bidaia pedagogikoa

Zatoz gurekin, aukera duzu oraindik



Apirilaren 27tik 30era

(Egun horietan hemen oporretan egongo bagara ere, lanean arituko dira Katalunian)

EGITARAUA:

- **Apirilaren 27an** (asteazkena). *Goizean*: EHTik Kataluniarako bidaia autobusez. *Arratsaldean*: Kataluniako hezkuntzaren egoera ezagutuko dugu: erronkak, egiten ari diren berrikuntzak... (Generalitat).
- **Apirilaren 28an** (osteguna). *Goiz eta arratsaldez* eskoletara joango gara.
- **Apirilaren 29an** (ostirala). *Goizean*: eskoletara bisitak. *Arratsaldean*: Rosa Sensat hezkuntza elkartekoekin bilera egingo dugu.
- **Apirilaren 30ean** (larunbata). *Goizean*: libre. *Arratsaldean*: EHra itzuliko gara.

Bisitatu ditugun eskolen ezaugarriak: Haur Eskolak (0-3 urte), HH eta LHko eskolak eta Nekazal giroko eskola bat.



Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.com